

Ahozko erabileraren garrantzia

hizkuntzaren normalizazioan

EGILEA: Nerea Aranguren Juaristi

IKASTAROA: Hizkuntza Plangintza Graduondokoa

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. EUSKARAREN EZAGUTZA
 - 2.1. Euskal herritarren elebitasun mota
3. EUSKARAREN ERABILERA
 - 3.1. Euskal herritarren erabilera hizkuntza familian
 - 3.2. Euskal herritarren erabilera hizkuntza hurbileko giza taldean eta leku publiko itxietan
 - 3.3. Euskal herritarren erabilera hizkuntza leku publiko irekietan
4. ARETXABALETAKO ETA ARRASATEKO EUSKARAREN EGOERA
5. GASTEIZKO ETA IRUÑEKO EUSKARAREN EGOERA
6. GASTEIZKO ETA IRUÑEKO EUSKARAREN EGOERA. ONDORIOAK
7. HIZKUNTZA POLITIKAREN GARRANTZIA EUSKARAREN ERABILERAN
8. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA

Euskararen berreskuratzeaz asko hitz egin da Euskal Herrian XX. mende erditik, azken mende laurdenetik batez ere, atzera. Izan ere, euskarak XX. mendean zehar ere lurraldeak eta eremuak galtzen jarraitu du. Era honetan, euskalgintzak 70. eta 80. hamarkada haietan indarrrik gehienak berreskuratzerara, euskalduntze-alfabetatzean hain zuzen ere, bideratu zituen. 90. hamarkada inguruan, ordea, zenbaitetik ezagutzen urrats handiak egin zirela baina erabileran ez zela tamaina bereko urratsik egin esan zuen.

Nik ere sakontze egitasmo hau hasieran, zenbait horien ikuspegitik hartu behar banuen ere, proiektu honetan zehar erabileraren erantzukizun osoa ezin dela utzi hiztunen leialtasunaren gain ikusi dut. Era honetan, euskaldunen leialtasuna ez ezik euskararen erabilera handitzeko euskaldunek euskaldunekiko harremanak izateko joera eta elebidun kopurua ere handitu behar dira.

Euskararen erabilera jorratuko dugu, batez ere lan honetan. Erabilerari ezagutzaren ikuspegitik helduko diogu; ondoren eskoletako hizkuntza ereduak eta euskaltegiako matrikulazioak ere aztertuko ditugu, euskararen ondorengoetaratzearen egoeraz jabetzeko. Eta, gero, kale erabileraren datuetara pasako gara. Era honetan, Euskal Herri osoko ikuspegi orokorra aztertuko dugu lehenbizi eta ondoren Euskal Herriko joera nagusi horiek aztertuko ditugu ikerketa gunea murriztuz. Era honetan, Aretxabaleta eta Arrasateko euskararen ezagutza eta euskararen irakaskuntzako matrikulak ikertuko ditugu lehenbizi; 2006ko kale neurketarekin kontrastatzeko ondoren. Bi herri hauek erkatuta, bien arteko berdintasunek eta ezberdintasunek euskararen kale erabileran eta euskararen normalizazioan zer nolako eragina duten azaltzen saiatuko gara.

Ondoren, Iruñeko eta Gasteizko euskararen egoera erkatu ditut lurraldekako euskararen egoeren azken atal honetan. Erkateta hau egiteko Siadecok 1989an bildu zituen datuak eta Euskararen Adierazle Sistemari eta Euskararen Datu Baseari bildutako ezagutza, jarrera datuak eta V. Kale Neurketako erabilera datuak erabili ditut; hizkuntza gutxituaren aldeko hizkuntza politika batek eta hizkuntza gutxituaren aurkako hizkuntza politika batek 20 urtean lor dezaketena erakusteko.

Amaitzeko, Euskal Herriko euskararen erabileraren eta hizkuntza normalizazioaren ikuspegi orokor eta murriztago horretatik jaso ditugun ondorioak aztertuko ditugu, euskararen aldeko hizkuntza politikaren garrantzia euskararen erabileran nabarmenduz.

2. EUSKARAREN EZAGUTZA EUSKAL HERRIAN

2.1. EUSKAL HERRITARREN ELEBITASUN MOTA



Hizkuntz-gaitasuna elebitasun motaren, lehenengo hizkuntzaren, hizkuntz-tipologiaren, sexuaren arabera (%bertikala). 2006

	Euskal Herria			Euskal AE			Nafarroa		
	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak
Laginareen tamaina (balio absolutuak)	7.185	3.496	3.689	3.599	1.760	1.839	1.587	784	803
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100
ELEBITASUN MOTA									
Euskal elebidun funtzionala	8	7	8	10	9	10	3	3	3
Elebidun funtzional orekatua	8	8	8	9	9	8	3	3	3
Erdal elebidun funtzionala	10	10	10	12	12	12	5	5	5
Elebidun hartzailea	15	17	14	18	20	17	8	7	9
Erdaldun elebakarra	59	58	60	52	50	53	81	82	81
ELEBITASUN MOTA									
Euskalduna	26	25	26	30	30	31	11	11	11
Erdalduna	74	75	74	70	70	69	89	89	89
LEHEN HIZKUNTZA									
Euskara	17	16	17	19	18	19	6	6	6
Euskara erdara eta	5	5	5	5	5	5	3	3	3
Erdara	79	80	78	76	77	75	90	91	90
HIZKUNTZA									

TIPOLOGIA									
Euskaldunzaharrak	15	14	15	17	16	18	6	6	6
Jatorrizko elebidunak	3	3	3	4	4	3	1	1	2
Euskaldun berriak	8	8	8	10	9	10	4	4	4
Partzialki euskaldun berriak	13	15	12	16	19	14	7	6	7
Partzialki erdaldunduak	2	2	2	2	2	3	1	1	1
Guztiz erdaldunduak	1	1	2	1	1	1	1	1	2
Erdaldun zaharrak	58	57	58	50	49	51	80	81	79

Data 2008ko Ekainaren 20a

Iturria: Euskal Herriko Inkesta soziolinguistikoa. 2006



1

Grafiko honetan Euskal Herriko biztanleen **elebiduntasun mota** eta elebiduntasun kopurua jasotzen da. Eta EAEk erakusten ditu elebiduntasunaren ehuneko jatorrenak. Izan ere, Euskal Herriaren etorkizunak elebiduna behar duela izan jada euskaltzale guztiek eta euskal herritar gehienek onartzen duten honetan, hizkuntza politika eta ingurune soziolinguistiko orekatua eskutik doazen inguruetan euskararen osasuna hobetzen ari da. Elebakartasuna, bada, gaur egun ez da prestigio gehien duen aukera Euskal Herrian. Bigarren hizkuntza, hirugarren hizkuntza eta, agian, laugarren hizkuntza zeinek izan behar duen erabakitzeke orduan adostasunik ez badago ere; hots, hizkuntza hauen hurrenkeran hizkuntza bakoitzak duen prestigioak eta identitate balioak agintzen badu ere¹.

Taula honetan ikusi ahal denez, Euskal Herri guztian erdaldun elebakarren multzoa da jendetsuena, euskal herritarren %59a da erdaldun elebakarra; emakumezkoen %60a elebakarra da eta gizonezkoen %58a. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, erdaldun elebakarren portzentaje hau jaitsi egiten da, biztanleen %52a da erdaldun elebakarra gizonezkoen %50a eta emakumezkoen %53a. Nafarroan, aldiz, biztanleen %81a da erdaldun elebakarra, emakumezkoen %81a eta gizonezkoen %82a. Azkenik, Iparraldean biztanleen %69a da erdaldun elebakarra, emakumezkoen % 70a eta gizonezkoen %67a. Beraz, Nafarroan dago erdaldun elebakar gehien. Bestalde, gizonezkoak emakumezkoak baino elebakarrago ez diren lurralde bakarra da Nafarroa, puntu bateko aldeगतik besterik ez bada ere.

¹ Gizarte diskurtsoen gaian ikusi dugun bezala, ordea, identitate funtzioa ez du zertan hizkuntzak bakarrik bete: *Gazte hauen ikuspegitik, euskaldun (vasco) izaeran euskarak toki oso berezia du, ezaugarri funtsezkoena ez izan arren. Euskal nortasuna, hau da, gu berezi bat, ez dago hizkuntza komunitatean (hots, hizkuntza bera erabiltzen duten subjektuak) bereziki oinarrituta; alderantziz, atxikimendu komunitatean (hots, sentimendu berezi bat erkidetzen duten subjektuak) oinarrituta baizik. Honek esan nahi du, garrantzitsuagoa dela atxikimendu komunitateko erkide izatea hizkuntza komunitatekoa baino (Jausoro; 25.or.). (...) Euskaradunak ez dio erdaradunari derrigorrez exijitzen euskara ikastea, euskara maitatzea baizik, eta horrela, gaztelaniaz egin arren atxikimendu harreman berbera dute euskararekiko (Jausoro: 32.or.).*

Elebidun hartzaileen taldea dugu jende kopuru gehiena biltzen duena erdaldun elebakarren ondotik. Hala, euskal herritarren %15a da elebidun hartzailea, gizonezkoen %17a eta emakumezkoen %14a. EAEko kopuruak batez bestekoaren gainetik daude, hauei esker puzten da batez bestekoa; EAEko biztanleen %18a da elebidun hartzailea, gizonezkoen %20 eta emakumezkoen %17a. Nafarroako kopurua, ostera, asko aldentzen da batez bestekotik; nafarren %8a da elebidun hartzailea, gizonezkoen %7a eta emakumezkoen %9a². Azkenik, Iparraldean herritarren %9 da elebidun hartzailea, gizonezkoen %10a eta emazteen %7a.

Erdal elebidun funtzionalena da hurrengo taldea hedaduraz, euskal herritarren %10a da tipologia honetako elebakarra eta gizonezkoen eta emakumezkoen portzentajeaz ez da alderik, Iparraldeko kopuruetan izan ezik. Iparraldean gizonezkoen %5a da erdal elebidun funtzional eta emakumezkoen %6a, biztanleen %6a batez beste. EAEn biztanleen %12a da erdal elebidun funtzional eta Nafarroan biztanleen %5a.

Elebidun funtzional orekatuen taldean, bestalde, euskal herritarren %8a sartzen da eta hauen barnean nafarren %3a, bi eremu hauetako hiltunengan ere ez da bereizketarik emakumezkoen eta gizonezkoen datuaren artean. EAEn, aldiz, gizonezkoen %9 da elebidun funtzional orekatua eta emakumezkoen %8, biztanleen %9a, beraz, batez beste. Iparraldean elebidun funtzional orekatuak dira biztanleen %11a, gizonezkoen %11 eta emazteen %12a.

Azkenik, euskal elebidun funtzionalen taldea da txikiena euskal herritarren artean; euskal herritarren %8 da euskaraz edozein funtziotan erdaraz baino erosoago sentitzen den taldekoa; gizonezkoen %7a eta emakumezkoen %8a, hain zuzen ere. Hemen ere, EAEko herritarrak batez bestekoaren gainetik daude, herritarren %10 da gisa honetakoa; gizonezkoen %9a eta emakumezkoen %10a. Nafarroan aurkitzen dugu ezaugarri hauetako herritar gutxien gizonezkoen eta emakumezkoen %3a soilik da euskal elebidun funtzionala. Iparraldean, amaitzeko, biztanleen %6a da euskal elebidun funtzionala, emakumezkoen %5a eta gizonezkoen %6a.

Elebitasun motaren taula, biztanlea erdal elebiduna den edo euskal elebiduna den, adierazten duena, ez dugu aipatuko, orain arte aipatutakoaren orokortze bat delako. Izan ere, elebitasun mota euskalduna denean

Hiztunak lehen hizkuntzaren arabera sailkatzen dituen atalari heltzen badiogu, berriz, euskara lehen hizkuntza euskal herritarren %17ak duela konturatuko gara, emakumeen %17ak eta gizonezkoen %16ak. EAEn %19k du lehen hizkuntza euskara, gizonezkoen %18k eta emakumezkoen %19k. Nafarroan da euskara lehen hizkuntza dutenen kopururik txikiena, biztanleen %6a. Iparraldean, aldiz, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa batez bestekoaren gainetik dago. Iparraldean dago euskara lehen hizkuntza duen jende gehiena, portzentajeei dagokienez; biztanleen %22ak du euskara lehen hizkuntza, gizonezkoen %21ak eta emazteen %22ak.

Lehen hizkuntzat euskara zein gaztelania dituzten euskal herritarrak, berriz, biztanleen %5 dira, bai Euskal Herri mailan eta bai EAE mailan ere eta ez da emakume eta gizonezkoen datuen artean desberdintasunik. Nafarroan ere emakume eta gizonezko kopuru berdinak

dituzte euskara nahiz erdara lehen hizkuntzat; hori bai, batez bestekoa %3ra jaisten da. Azkenik, Iparraldean atal honetan ere Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik daude; biztanleen %6ak ditu euskara zein erdara lehen hizkuntzat, gizonezkoen % 7ak eta emakumezkoen %5ak.

Lehen hizkuntza erdara duten euskal herritarrak biztanleen gehiengoa dira; % 79ak du lehen hizkuntzat erdara, gizonezkoen %80ak eta emakumezkoen %78ak. EAEn eta Iparraldean lehen hizkuntza erdara dutenak batez bestekoaren azpitik daude, Nafarroan, aldiz, batez bestekoaren oso gainetik. EAEn %76k du lehen hizkuntzat erdara, gizonezkoen %77ak eta emakumezkoen %75ak. Nafarroan biztanleen %90ak du lehen hizkuntza gaztelania, gizonezkoen %91k eta emakumeen %90ak. Iparraldean, azkenik, erdara lehen hizkuntza duten biztanleen ehuneko txikiena dago; % 72 hain zuzen ere, emakumezkoen %73 eta gizonezkoen % 72.

Hizkuntza tipologiari erreparatuz gero, berriz, euskal herritar gehienak erdaldun zaharren multzokoak direla konturatuko gara; biztanleen %58a da erdaldun zahar, gizonezkoen %57a eta emakumezkoen %58a. Erdaldun zahar gehien dituen lurraldea Nafarroa da; hitzunen %80a da erdaldun zahar, emakumezkoen %79a eta gizonezkoen %81a. Esan daiteke, Nafarroako datuek puze dutela erdaldun zaharren batez bestekoa. Izan ere, Iparraldeko kopuruak apalagoak dira, eta EAekoak oraindik eta apalagoak. Era honetan, Iparraldean emakumezkoen %67a da erdaldun elebakar eta gizonezkoen %64, biztanleen %66a, beraz. EAEn, berriz, gizonezkoen %49a da erdaldun elebakarra eta emakumezkoen %51, biztanleen %50 beraz. Guztiz erdaldunduak %1aren inguruan dabilta ia Euskal Herri osoan, Nafarroako emakumeen artean (%2a) eta Iparraldeko kasuan izan ezik. Iparraldean %1etik %3ra igotzen da guztiz erdaldunduen kopurua. Partzialki erdaldunduen multzoa ere guztiz erdaldunduen tankerakoa da. Euskal herritarren %2a biltzen du eta hemen ere Iparraldeko datuek puze dute Euskal Herriko batez bestekoa; ipar euskal herritarren %4a da partzialki erdaldundua. Guztiz erdaldunduen eta partzialki erdaldunduen multzo hauetan aipagarria da nafarrak batez bestekoaren parean edo azpitik daudela.

Partzialki euskaldun berria euskal herritarren %13a da, gizonezkoen %15a eta emakumezkoen %12a. EAeko herritarrak dira atal honetan batez bestekoaren gainetik dauden bakarrak, gizonezkoen %19a eta emakumezkoen %14a da partzialki euskaldun berria. Nafarren artean partzialki euskaldun berri gutxiago dago, herritarren %6aren eta %7aren artean dabilta. Eta Iparraldean herritarren %5a da partzialki euskaldun berria, gizonen %6a eta emakumeen %3a.

Euskaldun berriei dagokienez, euskal herritarren %8a, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan, euskaldun berria dela aipatu behar da. EAeko biztanleak batez bestekoaren gainetik daude; herritarren %10 da euskaldun berria, gizonezkoen %9a eta emakumezkoen %10a. Nafarroan biztanleen, bai emakumezkoen eta bai gizonezkoen, %4a da euskaldun berria eta Iparraldean biztanleen %2a da euskaldun berria gizonezkoen %1a eta emakumezkoen %2a.

Euskal herritarren, gizonezkoen zein emakumezkoen, %3a da jatorrizko elebiduna. EAEn jatorrizko elebidunak Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik daude; herritarren %4a da jatorrizko elebiduna, gizonezkoen %4a eta emakumezkoen %3a. Nafarroan daude jatorrizko elebidun gutxien; herritarren %1a da jatorrizko elebidun, gizonezkoen %1a eta emakumezkoen

%2a. Iparraldean, berriz, herritarren %2a da jatorrizko elebidun, gizonezkoen %3a eta emakumezkoen %2a.

Bukatzeko, euskal herritarren %15a da euskaldun zaharra, gizonezkoen %14a eta emakumezkoen %15a. EAEn eta Iparraldean Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik dago euskaldun zahar kopurua. Era honetan, EAEko biztanleen %17a da euskaldun zaharra: gizonezkoen %16a eta emakumezkoen %18a. Iparraldean da, ordea, euskaldun zaharren kopuru erlatiborik handiena; biztanleen %18a da euskaldun zaharra, gizonen %18a eta emakumezkoen %19a. Nafarroako datuak dira, beraz, Euskal Herriko batez bestekoa jaisten dutenak: biztanleen %6a, bai gizon bai emakume, da euskaldun zaharra.

3. EUSKARAREN ERABILERA

3.1. Euskal herritarren erabilera-hizkuntza familian



Erabilera-hizkuntza familian, hizkuntza eremu eta sexuaren arabera (%bertikala). 2006

	Euskal Herria			Euskal AE			Nafarroa			Ipar Eus
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Laginarek tamaina (balio absolutuak)	2.516	1.251	1.265	1.624	797	827	575	290	285	317
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU AMAREKIN?										
Nagusiki euskaraz	47	50	45	47	50	45	38	39	37	62
Euskaraz erdaraz hainbat	5	5	6	5	4	6	7	8	5	11
Nagusiki erdaraz	47	46	49	48	46	49	55	53	57	27
Laginarek tamaina (balio absolutuak)	2.237	1.115	1.122	1.480	733	747	480	241	239	277
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU AITAREKIN?										
Nagusiki euskaraz	45	47	43	44	47	42	38	39	38	67
Euskaraz erdaraz hainbat	5	5	5	5	4	5	6	6	5	9
Nagusiki erdaraz	50	48	52	51	49	53	56	55	57	24
Laginarek tamaina (balio absolutuak)	1.752	825	927	1.052	497	555	429	194	235	271
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU BIKOTEKIDEAREKIN?										
Nagusiki euskaraz	47	49	44	48	52	45	38	41	35	39
Euskaraz erdaraz hainbat	9	10	9	9	10	8	9	6	12	14
Nagusiki erdaraz	44	41	47	43	39	46	53	53	54	48
Laginarek tamaina (balio absolutuak)	1.598	700	898	919	406	513	379	163	216	300
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU SEME-ALABEKIN?										

Nagusiki euskaraz	69	72	67	75	78	72	68	73	64	28
Euskaraz erdaraz hainbat	12	10	14	11	9	13	11	8	13	19
Nagusiki erdaraz	19	18	20	14	14	14	21	19	23	53
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	2.990	1.485	1.505	1.867	928	939	729	362	367	394
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUTE ETXEAN?										
Nagusiki euskaraz	44	45	42	45	46	43	38	39	37	37
Euskaraz erdaraz hainbat	12	12	12	12	11	12	13	13	14	15
Nagusiki erdaraz	44	43	46	44	42	45	48	48	49	47

Data 2008ko Ekainaren 20a

Iturria: Euskal Herriko Inkesta soziolinguistikoa. 2006



Grafiko honetan Euskal Herriko euskaradunen etxeko erabilera ezagutzeko eta aztertzeko datuak eskaintzen zaizkigu. Era honetan, Euskal Herriko euskaldunen %44k, gizonezkoen %45ek eta emakumezkoen %42ak hitz egiten du nagusiki euskaraz etxean. Euskal Herriko euskaldunen %12ak, gizonezko zein emakumezko, euskaraz bezainbeste hitz egiten du erdaraz etxean; eta %44ak, gizonezkoen %43ak eta emakumezkoen %46ak, nagusiki erdara erabiltzen du etxean.

EAEko euskaldunen **etxeko erabilera** Euskal Herrikoaren parekidea da, nagusiki euskaraz aritzen direnen kopurua %44tik %45era (gizonezkoen %46k eta emakumezkoen %43k) inguratzen bada ere. Osterantzean, EAEn ere %12ak, gizonezkoen %11k eta emakumezkoen %12k, euskara erdara bezainbeste erabiltzen du etxean; eta EAEko euskaldunen %44k, gizonezkoen %42k eta emakumezkoen %45ek, erabiltzen dute nagusiki erdara etxean. Nafarroan eta Iparraldean Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik dago etxeko euskararen erabilera. Nafarroan euskaldunen %38k, gizonezkoen %39k eta emakumezkoen %37k, hitz egiten du nagusiki euskaraz etxean; herritarren %13k, gizonezkoen %13k eta emakumezkoen %14k, euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten du etxean eta %48ak, gizonezkoen %48k eta emakumezkoen %49k, hitz egiten du nagusiki erdaraz etxean. Iparraldean, azkenik, euskaldunen %47k, emakumeen %53k eta gizonezkoen %41ek, hitz egiten du euskaraz. Emakumeen etxeko euskararen erabileratik erdararen erabilera, beraz, 12 puntuko aldea dago.

Jarraian, etxeko erabilera hau azpisailekatuko dugu. Hala, euskaldunek amarekin erabiltzen duten hizkuntza aztertuz abiatuko gara, aitarekin erabiltzen dutenarekin eta bikotekidearekin segituz eta seme-alabekin erabiltzen dutena ezagutuz amaitzeko.

Euskal Herriko herritarren % 47k, gizonen %50ek eta emakumeen %45ek, nagusiki euskaraz **hitz egiten** dute **amarekin**. Amarekin euskaraz erdaraz bezainbat hitz egiten duten euskal herritarrak, berriz, biztanleen %5a, gizonen %5a eta emakumezkoen %6a, dira. EAEko euskaldunen %47k, gizonezkoen %50ek eta emakumezkoen %45ek, hitz egiten du amarekin nagusiki euskaraz. Amarekin euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten dutenak EAEko

euskaldunen %5, gizonen %5 eta emakumeen %6, dira. Eta amarekin nagusiki erdaraz hitz egiten duten EAeko euskaldunak %48, gizonen % 46 eta emakumeen %49, dira. Nafarroan Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik daude amarekin nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak; %38 dira, emakumeen %37 eta gizonezkoen %39. Amarekin euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten dutenak, ordea, batez bestekoaren gainetik daude; %7k erabiltzen dituzte hizkuntza biak amarekin, gizonen %8k eta emakumeen %5ek. Amarekin nagusiki erdaraz hitz egiten dutenak ere Euskal Herriko batez bestekoaren oso gainetik daude Nafarroan; nafarren %55k erabiltzen du erdara nagusiki amarekin, gizonen %53k eta emakumeen %57k. Azkenik, Iparraldean amarekin nagusiki euskara erabiltzen dutenen kopuru erlatiboa Euskal Herrikoaren oso gainetik dago; herritarren %62k hala egiten du, gizonen %64k eta emakumeen %61ek. Amarekin euskara erdara hainbeste erabiltzen dutenak ere Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik daude; biztanleen %11k erabiltzen ditu bi hizkuntzak, emakumeen %10ak eta gizonen %11k. Amarekin nagusiki erdara erabiltzen dutenak, beraz, Euskal Herri osoan baino gutxiago dira; ipar euskal herritarren %27ak hitz egiten du nagusiki erdaraz amarekin, gizonen %25ak eta emazteen %30ak.

Aitarekin hitz egiten duten hizkuntzaren arabera, Euskal Herriko euskaldunen %45 nagusiki euskara erabiltzen dutenen multzoan kokatzen dira, gizonezkoen %47 eta emakumeen % 43. Euskara erdara bezainbeste erabiltzen dutenak, berriz, euskal herritarren %5 dira, bai gizonetan bai emakumeetan. Aitarekin nagusiki erdaraz aritzen direnak, berriz, euskal herritarren %50 dira, gizonezkoen %48 eta emakumeen %52. EAeko datuak Euskal Herrikoetatik oso hurbil daude, erdarak puntu bat irabazten badu ere. Hala, EAEn euskaldunen %44k, gizonezkoen %47k eta emakumezkoen %42k, erabiltzen du euskara aitarekin. EAEn euskara erdara bezainbeste aitarekin erabiltzen dutenak, berriz, biztanleen %5 dira, emakumeen %5 eta gizonen %4. Aitarekin nagusiki erdara erabiltzen duten EAekoak %51 dira, emakumeen %53 eta gizonen %49. Nafarroan dira aitarekin euskara gutxien erabiltzen dutenak. Hala, nafarren %38k, gizonen 39k eta emakumeen %38k erabiltzen du nagusiki euskara aitarekin; nafarren %6k, gizonen %6k eta emakumeen %5ek, erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste aitarekin eta aitarekin nagusiki erdaraz hitz egiten duten nafarrak %53, emakumezkoen %57 eta gizonen %55, dira. Iparraldean, azkenik, aitarekin euskaldunen %67k, gizonen %67k eta emazteen %66k, egiten du euskaraz. Euskaraz erdaraz bezainbeste ipar euskal herritarren %9k, gizonen %8k eta emazteen %10k, egiten du; eta aitarekin nagusiki erdaraz ipar euskal herritarren %24k, gizonen %25ek eta emakumeen %24k, egiten du. Aitarekin nagusiki erdaraz egiten duten ipar euskal herritarren (%24), bada, aitarekin nagusiki erdaraz egiten duten euskal herritarren (%50) oso azpitik daude, beraz.

Bikotekidearekin erabiltzen den hizkuntzaren arabera, Euskal Herriko euskaldunen %47k, gizonen %49k eta emakumeen %44k, euskara erabiltzen du. Euskal herritarren %9k, gizonen %10ek eta emakumeen %9k, euskara erdara bezainbeste erabiltzen dute; eta euskal herritarren %44k, gizonen %41ek eta emakumeen %47k, nagusiki erdara erabiltzen dute bikotekidearekin. Beraz, aitarekin ez bezala, bikotekidearekin euskara erabiltzen dutenak gehiago dira erdara erabiltzen dutenak baino. EAEn, aldiz, herritarren %48k, gizonen %52k eta emakumeen %45ek, erabiltzen du bikotekidearekin euskara; euskaldunen %9k, emakumeen %8k eta gizonen %10ek, erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste; eta euskaldunen %43k, gizonen %39k eta emakumeen %46k, erabiltzen du nagusiki erdara bikotekidearekin. Nafarroan bikotekidearekin euskara erabiltzen dutenak ez dira hainbeste: euskaldunen %38k,

emakumeen %35ek eta gizonen %41ak, erabiltzen du bikotekidearekin nagusiki euskara; euskaldunen %9k, gizonen %6k eta emakumeen %12k, erabiltzen du euskara erdara bezainbeste; eta herritarren %53k, gizonen %53k eta emakumeen %54k, erabiltzen dute erdara nagusiki bikotekidearekiko harremanetan. Ipar Euskal Herrian, aldiz, aitarekin (%67) eta amarekin (%62) euskara erabiltzen dutenak gehiago dira bikotekidearekin (%39) euskara erabiltzen dutenak baino. Ipar euskal herritarren %39k, emakumeen %41ek eta gizonen %37k, erabiltzen du nagusiki euskara bikotekidearekin. Iparraldeko euskaldunen %14k, gizonen %17k eta emakumeen %10ek, hitz egiten dute euskaraz erdaraz bezainbeste bikotekidearekin; eta, euskaldunen %48k, emakumeen %49k eta gizonen %46k, erabiltzen dute nagusiki erdara bikotekidearekin.

Etxeko hizkuntzaren sailkapen honekin amaitzeko, euskaldunak **seme-alabekin hitz egiten duten hizkuntzaren** arabera sailkatuko ditugu. Euskal Herriko euskaldunen %69k, gizonen %72k eta emakumeen %67k, erabiltzen du nagusiki euskara seme-alabekin. Seme-alabekin euskara erdara bezainbeste erabiltzen dutenak, berriz, %12, gizonen %10 eta emakumeen %14, dira; eta seme-alabekin nagusiki erdara erabiltzen dutenak biztanleen %19, gizonen %18 eta emakumeen %20, dira. EAEn seme-alabekin euskara erabiltzeko joera handiagoa nabarmentzen da. Horrela, euskaldunen %75k, gizezkoen %78k eta emakumeen %72k, erabiltzen du nagusiki euskara seme-alabekin; %11k, emakumeen %13k eta gizonen %9k, erabiltzen du euskara erdara bezainbeste; eta EAeko euskaldunen %14, gizonen %14 eta emakumeen %14, dira seme-alabekin nagusiki erdara erabiltzen dutenak. Nafarroan Euskal Herriko batez bestekotik gutxi aldentzen dira seme-alabekin hitz egiterakoan dituzten hizkuntza ohiturak. Nafarroako euskaldunen %68k, gizonen %73k eta emakumeen %64k, erabiltzen du nagusiki euskara seme-alabekin hitz egiteko orduan; beste %11k, gizezkoen %8k eta emakumeen %13k, euskara erdara bezainbeste erabiltzen dute seme-alabekin; %21 dira, azkenik, seme-alabekin nagusiki erdaraz hitz egiten dutenak, emakumeen %23 eta gizonen %19. Beraz, Nafarroan nabarmendu beharreko datua da seme-alabekin gizezkoek emakumeek baino gehiago erabiltzen dutela euskara, 9 punturen aldea dago nagusiki euskaraz atalean eta 5 punturena euskaraz erdaraz bezainbeste atalean. Iparraldean, amaitzeko, seme-alabekin euskara egiten dutenen kopurua Euskal Herrikoaren oso azpitik dago. Era honetan, Ipar Euskal Herriko euskaldunen %28k, gizezkoen %31k eta emakumeen %25ek, hitz egiten dute seme-alabekin nagusiki euskaraz; erdaraz euskaraz bezainbeste hitz egiten dutenak Iparraldean %19 dira, emakumeen %19 eta gizonen %20; eta, seme-alabekin nagusiki erdaraz hitz egiten dutenak dira Ipar Euskal Herriko euskaldun gehienak: %53, hain zuzen ere, emakumeen %55 eta gizonen %50.

3.2. Euskal herritarren erabilera-hizkuntza hurbileko giza taldean eta leku publiko itxietan



Erabilera-hizkuntza hurbileko giza taldean, hizkuntza eremu eta sexuaren arabera (%bert

	Euskal Herria			Euskal AE			Nafarroa			Iparralde
	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonak	Emakumezkoak	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	3.252	1.607	1.645	1.999	985	1.014	787	396	391	466
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITENDU LAGUNEKIN?										
Nagusiki euskaraz	46	47	45	47	47	46	44	47	40	41
Euskaraz erdaraz hainbat	19	21	17	18	20	16	18	18	18	28
Nagusiki erdaraz	35	32	38	35	33	37	38	35	42	31
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	1.655	891	764	1.029	557	472	404	213	191	222
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITENDU LANKIDEEKIN?										
Nagusiki euskaraz	46	43	49	48	44	52	39	38	41	29
Euskaraz erdaraz hainbat	19	22	16	19	23	16	13	16	10	23
Nagusiki erdaraz	35	35	35	32	33	32	48	46	49	48
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	3.219	1.588	1.631	1.999	985	1.014	769	383	386	455
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU AUZOKO DENDETAN?										
Nagusiki euskaraz	41	44	38	44	47	42	34	39	28	14
Euskaraz erdaraz hainbat	17	17	17	17	18	17	13	13	13	18

Nagusiki erdaraz	42	39	45	39	35	42	54	48	59	68
------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Laginaren tamaina (balio absolutuak)	3.155	1.562	1.593	1.999	985	1.014	737	371	366	41
--------------------------------------	-------	-------	-------	-------	-----	-------	-----	-----	-----	----

ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU BANKU EDO KUTXETAN?										
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Nagusiki euskaraz	51	55	48	55	59	52	40	43	36	14
-------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Euskaraz erdaraz hainbat	10	10	10	10	11	10	8	7	8	12
--------------------------	----	----	----	----	----	----	---	---	---	----

Nagusiki erdaraz	39	35	42	34	30	38	53	50	55	74
------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Laginaren tamaina (balio absolutuak)	3.198	1.576	1.622	1.999	985	1.014	749	374	375	45
--------------------------------------	-------	-------	-------	-------	-----	-------	-----	-----	-----	----

ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU ANBULATEGIAN?										
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Nagusiki euskaraz	37	39	35	40	42	38	32	35	29	7
-------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	---

Euskaraz erdaraz hainbat	14	15	13	15	16	14	9	11	6	10
--------------------------	----	----	----	----	----	----	---	----	---	----

Nagusiki erdaraz	49	46	52	45	42	48	60	54	65	83
------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Laginaren tamaina (balio absolutuak)	3.153	1.564	1.589	1.999	985	1.014	715	364	351	43
--------------------------------------	-------	-------	-------	-------	-----	-------	-----	-----	-----	----

ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DU UDALETXEAN?										
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Nagusiki euskaraz	53	56	51	57	60	55	40	43	37	23
-------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Euskaraz erdaraz hainbat	12	13	11	12	13	11	12	13	11	21
--------------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Nagusiki erdaraz	34	31	38	31	28	35	48	44	52	56
------------------	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----

Azken taula honetan euskal herritarrak lagunekin eta lankideekin erabiltzen duten hizkuntzaren arabera sailkatu dira; baita auzoko dendetan, banku edo kutxetan, anbulatorioan eta udaletxean egiten duten hizkuntza hautuaren arabera ere.

Era honetan **lagunekin** nagusiki euskaraz Euskal Herriko euskaldunen %46k, gizonen %47k eta emakumeen %45ek, **hitz egiten** du. Euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten duten euskaldunak %19, gizonen %21 eta emakumeen %17, dira eta nagusiki lagunekin erdaraz erabiltzen dutenak EHko euskaldunen %35 dira, emakumeen %38a eta gizonen %32a. Nabarmendu beharrekoa da, beraz, orain arte ikusi dugunaren ildotik zentsuko datuek Euskal Herriko emakumeen erdarako joera azaltzen dutela. EAEko euskaldunen artean ere, maila apalagoan bada ere joera hau mantendu egiten da: %47k, emakumeen %46k eta gizonen %47k, nagusiki euskaraz egiten du; %18k, emakumeen %16k eta gizonen %20k, euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten du eta %35ek, emakumeen %37k eta gizonen %33k, nagusiki erdaraz hitz egiten dute lagunekin. Nafarroan eta Iparraldean dute, batez ere, emakumeek lagunekin hitz egiterakoan erdarako joera handiagoa. Nafarroan %44k, emakumeen %40k eta gizonen %47k nagusiki euskara erabiltzen dute lagunekin; euskaldunen %18k, gizon zein emakume izan, euskara erdaraz bezainbat erabiltzen dute eta herritarren %38k, gizonen %35ek eta emakumeen %42k, nagusiki erdaraz erabiltzen du lagunekin. Iparraldean euskaldunen %41ek erabiltzen du lagunekin nagusiki euskara, emazteen %39k eta gizonen %42k; euskaldunen %28k erabiltzen du euskara erdaraz bezainbeste, emazteen %24k eta gizonen %32k; eta lagunekin nagusiki erdaraz erabiltzen duten euskaldunak %31 dira, gizonen %26 eta emazteen %36. Iparraldean lagunekin nagusiki erdaraz erabiltzen duten gizonen eta emakumeen artean hamar puntuko aldea dagoela aipatu behar da, emakumeek lagunekin erdaraz gehiago erabiltzen dute, beraz. Bestalde, Euskal Herriko lurralde guztietan lagunekin nagusiki euskaraz hitz egiten duten euskaldunak nagusiki erdaraz hitz egiten dutenak baino gehiago dira. Beraz, NORBANAKO eta FAMILIA maila utzi eta, euskara HERRI mailara (Xamar eta Txepetx) iristen dela aipatu behar da Euskal Herri osoan, nahiz eta euskaldun dentsitatea txikia den eremuetan herrian eragin gutxi izan.

Lankideekin erabiltzen duten hizkuntzaren arabera Euskal Herriko euskaldunak honela sailka genitzake: euskaldunen %46k, gizonen %47k eta emakumeen %45ek erabiltzen du euskara nagusiki; euskaldunen %19k, gizonen %22k eta emakumeen %16k, erabiltzen du euskara erdaraz bezainbeste lankideekin; eta, euskaldunen %35ek, gizon zein emakume, erabiltzen du nagusiki erdaraz lankideekin. EAEko euskaldunak Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik kokatzen dira: euskaldunen %48k erabiltzen du euskara nagusiki lankideekin, emakumeen %52k eta gizonen %44k; euskaldunen %19k erabiltzen du euskara erdaraz bezainbeste lankideekin, emakumeen %16k eta gizonen %23k; eta euskaldunen %32k erabiltzen du lankideekin nagusiki erdaraz, emakumeen %32k eta gizonen %33k. Nafarroan eta Iparraldean lankideekin gehienbat erdaraz erabiltzen dute bertako euskaldunak. Hala, Nafarroako euskaldunen %48k, emakumeen %49k eta gizonen %46k, erdaraz erabiltzen du nagusiki lankideekin; euskaldunen %13k, gizonen %16k eta emakumeen %10ak, euskaraz erdaraz

bezainbeste hitz egiten du lankideekin; eta %39k, gizonen %38k eta emakumeen %41ek, euskara erabiltzen du nagusiki lankideekin. Iparraldean euskaldunen %48k, gizonen %41ek eta emakumeen %55ek, erabiltzen dute erdara nagusiki lankideekin; euskaldunen %23k, gizonen %21ek eta emakumeen %25ek, erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste lankideekin; eta euskaldunen %29k, gizonen %37k eta emakumeen %20k, soilik erabiltzen du euskara lankideekin. Honek, agerian uzten du euskarak lan munduan duen prestigio eskasa eta lehen aipatutako HERRIA maila ere kolokan jartzen du.

Auzoko dendetan hitz egiten den hizkuntzaren arabera Euskal Herriko euskaldunak modu honetara sakabanatzen dira: %41k, emakumeen %38k eta gizonen %44k, nagusiki euskaraz hitz egiten du; euskaldunen %17k, gizon zein emazte izan, euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten du; eta, euskaldunen %42k, emakumeen %45ek eta gizonen %39k erdara erabiltzen du nagusiki. EAEn zerbait gehiago dira auzoko dendetan nagusiki euskaraz hitz egiten duten euskaldunak; %44, hain zuzen ere, emakumeen %42 eta gizonen %47. EAeko euskaldunen artean, auzoko dendetan euskaraz erdaraz bezainbeste egiten dutenak %17 dira, emakumeen %17 eta gizonen %18; eta, nagusiki erdaraz hitz egiten dutenak %39 dira, gizonen %35 eta emakumeen %42. EAEn ere, beraz, auzoko dendetan nagusiki erdaraz egiten duten emakumeak gizonak baino gehiago dira; zazpi puntuko aldea dute. Nafarroan auzoko dendetan euskara erabiltzen dutenen kopurua ere Euskal Herrikoaren azpitik dago, eta zer esanik ez Iparraldean. Nafarroan euskaldunen %34k, gizonen %39k eta emakumeen %28k, erabiltzen du nagusiki euskara auzoko dendetan; euskaldunen %13k, bai emakume bai gizon, erabiltzen du euskara erdara bezainbeste dendetan; eta euskaldunen %54k, gizonen %48k eta emakumeen %59k erabiltzen du erdara nagusiki auzoko dendetan. Hau da, Nafarroan auzoko dendetan nagusiki erdara erabiltzen duten emakumeak gizonak baino askoz gehiago dira kopuru erlatiboari dagokionez, 11 puntuko aldea ateratzen die gizonari. Iparraldean, amaitzeko, euskaldunen %14k erabiltzen du euskara auzoko dendetan, gizonen %17k eta emakumeen %10ak; euskaldunen %18k, gizonen %14k eta emazteen %21ek, euskara erdara bezainbeste erabiltzen dute; eta euskaldunen %68k, emazteek eta gizonak maila berean, erabiltzen dute erdara auzoko dendetan. Hona, bada, Iparraldeko diglosiaren froga edo lagin ezin hobea.

Banku edo kutxetan hitz egiten duten hizkuntzari erreparatuz gero, Euskal Herriko euskaldunen %51k, gizonen %55ek eta emakumeen %48k, nagusiki euskara erabiltzen dute; euskaldunen %10ak, bai gizonetan bai emakumeetan, euskara erdara bezainbeste erabiltzen dute; eta, euskaldunen %39k, gizonen %35ek eta emakumeen %42k, nagusiki erdara erabiltzen dute. Beraz, batez beste Euskal Herrian bankuarekin hartu-emanetan euskara erabiltzen duten euskaldunak gehiago dira erdara erabiltzen dutenak baino. EAeko datuak EHko batez bestekoaren gaineratik daude: euskaldunen %55ek erabiltzen du nagusiki euskara, emakumeen %52k eta gizonen %59k; euskaldunen %10ak, emakumeen %101k eta gizonen %11k, erabiltzen du bankuarekin euskara erdara bezainbeste; eta, euskaldunen %34k erabiltzen du erdara nagusiki, emakumeen %38k eta gizonen %30ek. Nafarroan bankuarekiko harremanetan euskara erabiltzen dutenen kopurua Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik badago ere, ez da Iparraldekoa bezainbat aldentzen. Era honetan, Nafarroan euskaldunen %40k, gizonen %43k eta emakumeen %36k, erabiltzen du nagusiki euskara bankuekin eta kutxekin; euskaldunen %8k, gizonen %7k eta emakumeen %8k, erabiltzen dute euskara erdara bezainbat bankuekin; eta, %53k, gizonen %50ek eta emakumeen %55ek, erabiltzen dute nagusiki erdara bankuekin. Iparraldean, bankuekiko harremanen $\frac{3}{4}$ nagusiki erdaraz burutzen

dituzten bertako euskaldunek. Hala, euskaldunen %74k, gizonen %73k eta emakumeen %75ek erdara erabiltzen dute nagusiki; euskaldunen %12k, gizonen %10ek eta emakumeen %14k, euskara erdara bezainbat erabiltzen dute; eta, euskaldunen %7k bakarrik ditu nagusiki euskaraz bankuarekiko harremanak, gizonen %10ek eta emakumeen %6k.

Anbulatorioan edo osasun-etxean zein hizkuntzatan hitz egiten den jakitea ere ezinbestekoa dugu euskararen gizarte eta herri erabileraz jabetzeko. Hala, Euskal Herriko euskaldunen %37k nagusiki euskara erabiltzen duela dio, emakumeen %35ek eta gizonen %39k; euskaldunen %14, emakumeen %13k eta gizonen %15ek, euskaraz erdaraz bezainbeste egiten du ambulatorioan; eta, euskaldunen %49k, emakumeen %52k eta gizonen %46k, erdara erabiltzen du nagusiki osasun-etxean. EAEn batez besteko hau euskararen alde hobetzen da: euskaldunen %40k erabiltzen du nagusiki euskara ambulatorioan, gizonen %42k eta emakumeen %38k; euskaldunen %15ak, gizonen %16k eta emakumeen %14k, hitz egiten du euskaraz erdaraz bezainbeste ambulatorioan; eta, EAeko euskaldunen %45ek, gizonen %42k eta emakumeen %48k, hitz egiten dute nagusiki erdaraz osasun-etxean. Beraz, EAeko datuak hobek badira ere euskarari dagokionez, EAeko herritar gehienek osasun-etxeko hizkuntza erdara da. Nafarroan euskaldunen %32k erabiltzen du euskara nagusiki osasun-etxean, gizonen %35ek eta emakumeen %29ak; euskara erdara bezainbat erabiltzen dutenak, gizonen %11 eta emakumeen %6, %9 dira; eta ambulatorioan nagusiki erdaraz aritzen direnak euskaldunen %60 dira, gizonen %54 eta emakumeen %65. Iparraldean, erakunde publikoen artean, osasunaren honetan aurkituko ditugu euskararentzat gogorrenak diren datuak, gainerako erakundeetatik gehiegi aldentzen ez badira ere. Era honetan, osasun etxean nagusiki euskara erabiltzen duten euskaldunak %7 dira, emakumeen %6 eta gizonen %10; euskara erdara bezainbat erabiltzen dutenak %10 dira, emakumeen %11 eta gizonen %9; eta, nagusiki erdara erabiltzen duten euskaldunak %83 dira, emakumeen %84 eta gizonen %81.

Erakunde publikoetako hizkuntzen erabileraren sailkapen honekin amaitzeko, udaletxeko zerbitzuetan erabiltzen den hizkuntza aztertuko dugu. Era honetan, Euskal Herriko euskaldunen %53k, gizonen %56k eta emakumeen %51k, udaletxean nagusiki euskara erabiltzen du; euskaldunen %12k, gizonen %13k eta emakumeen %11k, euskara erdara bezainbat erabiltzen du udaletxean; eta euskaldunen %34k, gizonen %31k eta emakumeen %38k, euskara erabiltzen du udaletxeko egitekoetan. Udaletxea da, beraz, aztertu ditugunetatik, Euskal Herrian euskarazko harreman gehien ahalbidetzen dituen erakundea. EAEn, Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik daude udaletxearekiko euskarazko hartu-emanak. Hala. EAeko euskaldunen %57k, emakumeen %55ek eta gizonen %60k, dute udaletxearekin euskarazko hartu-emanak; euskaldunen %12k, emakumeen %11k eta gizonen %13k erabiltzen dute euskara erdara bezainbat udaletxean; eta, euskaldunen %31k, emakumeen %35ek eta gizonen %28k, erabiltzen dute nagusiki erdara udaletxearekin. Nafarroan erabilera hau jaitsi egiten da: euskaldunen %40k, gizonen %43k eta emakumeen %37k, erabiltzen du euskara nagusiki udaletxean; euskaldunen %12k erabiltzen du euskara erdara bezainbeste udaletxean, gizonen %13k eta emakumeen %11k; eta, euskaldunen %48k, gizonen %44k eta emakumeen %52k, erabiltzen dute nagusiki erdara udaletxeko zerbitzuetan. Iparraldean ere, Nafarroan eta EAEn bezala, udaletxea da euskara gehien erabiltzen den erakundea, aztertu ditugunetatik: euskaldunen %23k, gizonen %28k eta emakumeen %19k, erabiltzen du nagusiki euskara udaletxean; euskaldunen %21ek, gizonen %19k eta emakumeen

%22k, erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste udaletxean; eta euskaldunen %56 dira udaletxean erdara nagusiki erabiltzen dutenak, gizonen %53 eta emakumeen %59.

3.3. Euskal herritarren erabilera hizkuntza leku publiko irekietan

Ondoko tauletan Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketak 17 urtean zehar bildu dituen datuak erabiliko ditugu eskuartean. Kale Neurketa hau behaketa bidezko datu-bilketa da; hau da, orain arte aipatu ditugun alor ezberdinetako erabilera hizkuntzak jasotzerakoan inkesta erabili den bezala, Kale Neurketako erabilera datuetan egun eta leku konkretu batean entzun den hizkuntza jasotzen da. Kale Neurketak, beraz, datuak modu objektiboan jasotzen ditu; etxebizitzaren zentsuko galdeketak, berriz, erabilera aitortua edo subjektiboa bilatzen du. Goazen bada 1989tik 2006ra arteko, Euskal Herri osoko, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE), Nafarroako eta Iparraldeko datuak taulaz taula ikustera.

Euskal Herrian:

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1989	10.8	15.1	8.5	9.2	13.7		
1993	12.0	16.7	10.4	10.0	13.0		
1997	13.0	17.7	11.9	11.0	12.8	13.1	13.4
2001	13.5	19.0	13.6	11.3	12.0	13.8	13.4
2006	14.2	20.8	13.8	12.3	10.7		

Euskal Herrian 3,4 puntu igo da euskararen presentzia kalean 17 urtean. Igoera horren eragileak haurrak eta gazteak izan dira batez ere. Gazteen erabilera 5,3 igo da eta haurren kale erabilera, berriz, 5,7 puntu igo da. Haurrena da, ondorioz, Euskal Herrian kalean euskara gehien erabiltzen duten kolektiboa. Haurren eta gazteen erabilera zenbatekoak ikusita, irakaskuntza proiektu elebidunarekin edo eleaniztasunarekin asmatu dela esan behar da, beraz. Helduen kale erabilerak ere 3,1 puntuko igoera izan du; euskalduntze-alfabetatzea ari da beraz fruituak ematen; bai eta lantokietako euskara planak eta lanpostuetarako hizkuntza eskakizunak ere. Modu honetan, zaharrena da euskararen kale erabileran jaitsiera izan duen talde bakarra; 3 puntuko jaitsiera izan du. Hau nagusiki, duela 20 urte elebakarren multzo potoloenak, helduenak, adinean aurrera egin ahala eta adin tarte hau euskalduntzeko neurri gutxi hartu zirelako gertatu da. Belaunaldi aldaketa da, beraz, jaitsiera honen eragile: duela 17 urte euskaldun gehien (asko elebakarrak) zituen bigarren taldea izatetik, ordukoak hiltzen joan diren eta gehiengo elebakarra zen helduak zahartu diren heinean, kalean euskara gutxien erabiltzen duen gizataldea izatera pasa dira adintsuak.

1997an eta 2001ean zenbat pertsonak erabiltzen zuten euskara apuntatzearekin batera, pertsona horiek emakumezkoak ziren edo gizonak ziren ere apuntatu zuten. 2001ean gizonen 1997ko erabilera indize bera mantendu zuten eta emakumeek 0,7ko igoera izan zuten; gizonen euskara erabileraren gainetik jarritz. Era honetan, 1997an gizonen emakumeek baino gehiago erabiltzen zutela euskara kalean ohartarazi behar da, 0,3 puntuko aldeagatik bada ere. Eta, 2001ean emakumeek gizonen baino euskara gehiago erabiltzen zutela ikusi da, 0,4 puntuko

aldea ateratzen die emakumeek gizonen. Joera aldaketa bat iragarri dezake honek. 2006ko datuak ez izatean ezer aurreratu ezin badaiteke ere.

Bigarren atalean aztertu ditugun ezagutza datuetara jotzen badugu, berriz, Euskal Herrian 2006an euskal elebiduna biztanleen %26 da eta hauen erdiak baino gehiagok (%14,3k) kalean euskara erabiltzen du kalean. Gogoan izan, sailkapen hartan erdal elebidunen artean kokatzen genituen erdal elebakarrak ere.

Euskal Autonomi Elkarteak:

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1989	11.5	16.7	9.6	10.4	16.6		
1993	13.7	18.9	11.8	11.4	15.9		
1997	15.2	21.1	14.0	12.6	15.1	15.2	15.1
2001	16.1	23.5	16.1	13.2	14.5	16.3	15.9

EAEko euskararen kale erabilera datuak Euskal Herriko batez bestekoaren ginetik daude: kalean entzuten den %16,1 euskaraz entzuten da. Era honetan, EAEn ere haurrak dira kalean euskara gehien erabiltzen duten gizataldea, baita igoera handiena izan duena ere 6,8ko igoera izan du haurren erabilerak hamazazpi urtean. Gazteena da EAEn euskararen erabilera handiena erakutsi duen bigarren taldea; hauek ere haurren igoera antzekoa izan dute, 6,5 puntuko igoera erakutsi dute. Helduek kale erabileran 2,8 puntuko gorakada izan dute; Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik daude, ordea, 3,1 puntu handiagoa baita Euskal Herri osoko helduen erabilera. EAEn ere, zaharren kolektiboak beste gizataldeek baino erabilera kaskarragoa erakutsi du: %14,5koa; hala ere, 1989tik honako beherakada 2,1 puntuko da, Euskal Herri osoko gutxitzea 3 puntuko den bitartean.

EAEn 2001eko datuen arabera emakumeek gizonen baino euskara gehiago erabiltzen dute 0,4 puntuko aldea ateratzen die emakumeek gizonen. 1997an, berriz, gizonen euskara erabilera (%15,1) eta emakumeena (%15,2) parekoak ziren. Emakumeen erabilerak 1,1eko aldea izan du, ordea, 1997tik eta gizonenak 0,8koa.

Bigarren ataleko ezagutza datuetara jotzen badugu EAEko herritarren %30 dela elebiduna jabetuko gara. Beraz, euskaldunen erdiak baino gehiagok (%16,1ek) erabiltzen du euskara kalean. Euskara ezagutzen dutenen (%30) erdiak (%15) erdiak baino %1,1 gehiagok (%16,1) hitz egiten baitu euskaraz kalean.


Nafarroa Garaia 

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1989	6.5	9.8	5.3	5.3	5.8		
1993	6.7	9.9	5.9	5.5	5.5		
1997	6.8	9.2	5.7	6.0	6.4	7.0	8.6
2001	6.7	8.7	6.1	5.9	5.3	7.3	5.5
2006	6.6	8.5	6.9	5.5	5.8		

Nafarroa Garaian (%6,6) euskararen kale erabilera Euskal Herriko batez bestekotik (%14,3)asko azpiratzen da. 17 urtean euskararen kale erabilerak 0,1 puntuko igoera izan du. Hau, lehen ere aipatu dugun, Nafarroako instituzioen aldetiko hizkuntza politikaren ondorioa da. 90. hamarkadaren erdi aldera arte euskararen aldeko zein aurkako hizkuntza politikak tartekatuz ziren. Handik aurrera, ordea, ohikoak izan dira Nafarroako Gobernuak eta instituzioek euskarari jarritako oztopoak (3.4. gaia, euskararen lege estatusarena begiratu beharko nuke zehazteko). Euskararen ondorengoetaraztearen eraginkortasunaz ohartarazten gaituen haurren erabilerak behera egin du Nafarroan 1,3 puntuko jaitsiera izan du; hemen, jaitsiera 1997tik aurrera gertatu da. Gazteen erabilera izan da igoerarik handiena (1,6 puntukoa) erakutsi duena; 1993tik 1997ra jaitsiera txiki bat egon bazen ere. Helduek ere 0,2ko igoera izan dute 17 urtean. Zaharretan, aldiz, Euskal Herri osoko erabilera gutxitzeko joera ez da bete; 1997ko eta 2006ko neurketetako susperraldiei esker, jaitsierei erantzun baitzaie.

Nafarroan 1997an gizonen emakumeek baino 1,6 puntuko erabilera hobeagoa erakutsi zuten. 2001ean, ordea, emakumeen erabilera 0,3 puntu hobetu da, 7,3 punturaino igoz, eta gizonenak 3,1 puntu apaldu da; zifra oso kaskarra (%5,5) utziz.

Kopuru hauek ezagutzaren ataleko datuekin aldeztu baditugu, berriz, Nafarroan ere euskaradunen (%11) erdiak baino zerbait gehiago erabiltzen duela euskara kalean jabetuko gara. Ezagutzen dutenen (%11) erdiak (%5,5) baino %1,1ek gehiagok (%6,6) erabiltzen baitu euskara kalean.

Ipar EH 

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1993	6.5	5.1	3.2	6.2	11.3		
1997	6.3	4.9	3.1	6.0	10.5	6.9	8.2
2001	5.8	5.2	2.6	5.4	8.9	4.8	8.7
2006	4.6	4.8	3.6	4.0	7.7		

Ipar Euskal Herrian, oster, kalean entzuten diren elkarrizketetatik %4,6 euskaraz jaso dira 2006an, 1993an baino %1,9 euskara gutxiago entzun da kalean, beraz. Beherakada honetan gazteen adin taldeak ez beste guztiek izan dute zerikusia. Izan ere, gazteen euskara erabilera %0,4 puntu hobetu da. Haurrenak, aldiz, 0,3 puntu egin du behera. Helduena eta, bereziki, zaharrena izan dira, baina beherakada gogorrena erakutsi dutenak. Helduen euskara erabilerak 2,2 puntu egin du behera 17 urtean eta zaharrenak, berriz, 3,6 puntuko jaitsiera izan du.

Iparraldean gizonak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak. 1997tik 2001era, gainera, %0,5eko igoera ere izan zuen beren euskara erabilerak. Emakumeek gizonen baino 1,3 puntu gutxiagoko erabilera erakutsi zuten 1997an; eta 3,9 puntu gutxiagoko erabilera 2001ean. Honela, 2001ean emakumeen euskara erabilera (%4,8) gizonenak (%8,7) erditik (%4,35) hurbil geratu zen.

Erabilerari buruzko datu hauek Iparraldeko euskararen ezagutzaren datuekin erkatuz gero, ordea, euskara dakitenen (%22) laurdenak (%5,5) baino gutxiagok erabiltzen duela kalean

(%4,6k) jabetzen gara. Datu honek ez dio ia eragiten Euskal Herriko datuari Iparraldeko biztanleen pisu absolutua Euskal Herri osoko biztanleekiko txikia delako.

4. ARRASATEKO ETA ARETXABALETAKO EUSKARAREN EGOERA



Bi udalerriren arteko konparazioa : Aretxabaleta eta Arrasate/Mondragón

Biztanleria, lurralde-eremuen, migrazioarekiko erlazioaren eta sexuaren arabera. 2001

	Guztira			Sedentarioa			Barneko migratzailea		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Euskal AE	2.082.587	1.017.883	1.064.704	965.567	490.757	474.810	644.667	305.923	338.744
(T) Gipuzkoa	673.563	330.454	343.109	328.364	169.220	159.144	212.353	99.408	112.945
(C) Deba Garaia	62.010	31.102 / %50,2	30.908 / %49,8	32.093 / %51,8	16.602 / %51,7	15.491 / %48,3	18.380 / %29,6	8.816 / %48	9.564 / %51,6
(M) Aretxabaleta	6.184	3.144 / %50,8	3.040 / %49,2	2.633 / %42,6	1.365 / %51,8	1.268 / %48,2	2.538 / %41	1.299 / %51,2	1.239 / %48,8
(M) Arrasate/Mondragón	23.118	11.506 / %49,8	11.612 / %50,2	10.173 / %44	5.218 / %51,3	4.955 / %48,7	7.450 / %32,2	3.608 / %48,4	3.842 / %51,6

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua (BEZ01)

Datu hauetan ikusi ahal dezakeguz, Arrasate eta Aretxabaleta eskualde bereko, Deba Garaiko, bi herri izanagatik ere ezberdintasun asko dituzte; bata biztanleriarena dugu. Arrasatek 23.118 biztanle ditu 2001eko zentsuaren arabera eta Aretxabaletak, berriz, 6.184 biztanle. Izan ere, Arrasatek eskualde buru bezala ekonomia eta zerbitzu jarduera handiagoa biltzen du eta biztanle gehiago erakartzen ditu.

Taula honetan, bestalde, Arrasaten emakumezkoak biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago, %50,2, direla ikusten dugu. Aretxabaletan, oster, gizonezkoak (%50,8) emakumeak baino gehiago direla ikus dezakegu.

Biztanleen jatorriari dagokionez, Deba Garaian biztanleen %18,6 da imigrantea; Arrasateko imigratio tasa Deba Garaikoa baino handiagoa da, arrasatearren %23,8 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpokoa da. Aretxabaletakoa, oster, Deba Garaiko imigratio tasaren azpitik dago. Bestalde, bai Aretxabaletan (%52,6) eta bai Arrasaten (%51,2) emakumezko imigranteak gehiago dira gizonezkoak baino, baita Deba Garaian (%50,7) ere.

Biztanleak, lurralde-eremuaren, sexuaren, adin-taldean eta nazionalitatearen arabera. 2006. (p)

	Sexuen arteko ratioa (1)	Adin-taldeak %			Atzerritarrak %	
		0-19	20-64	65+	EB	Gainerakoa
Euskal AE / C.A. de Euskadi	1,0				1,1	
(T) Gipuzkoa	1,0	17,3	64,3	18,4	1,3	2,7
(C) Deba Garaia / Alto Deba	1,0	16,3	64,6	19,1	0,9	2,2
(M) Aretxabaleta	1,0	17,5	66,6	16,0	1,3	1,5
(M) Arrasate/Mondragón	1,0	15,3	64,8	19,8	0,6	1,9

(1) Gizonezkoak zati emakumezkoak zatidura

(p) Behin-behineko datuak.

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika (2006)

Taula honetan, bada, ahotan dabilzkigun imigrante horien jatorria eta biztanleria osoaren adin tarteaz aztertuko ditugu. Era honetan, Deba Garaian imigranteen gehiengoa %2,2 Europako Batasunetik kanpokoa dela jabetzen gara, Europako Batasuneko atzerritarrak biztanleen %0,3 diren bitartean. Aretxabaletan Europako Batasuneko atzerritarrak, herritarren %1,3, eta Europako Batasunetik kanpokoak, herritarren %1,5, nahiko parean daude. Arrasaten, ordea, Europako Batasunekoak ez direnak dira gehiengoa, herritarren %1,9, Europako Batasunekoekin, herritarren %0,6, alderatuta.

Biztanleen adinari dagokionez, bai Deba Garaian, bai Arrasaten eta bai Aretxabaletan 20-64 adin tartea biltzen du biztanle gehien; %64,6, %64,8 eta %66,6 hurrenez hurren. Arrasaten

dago 65 urtetik gorako pertsona gehien %19,8; eskualdean ere asko dira %19,1 eta Aretxabaletan %16 dira 65 urtez gorakoak, beste bietan baino 3-4 puntu gutxiago hartzen dute adinekoek.

Aretxabaletak du, bada, biztanleriarik gazteena, 65 urtez azpikoak herritarren %84,1 dira; eskualdean 65etik azpikoak %80,9 dira eta Arrasaten %80,1 dira. Honek gero jorratuko ditugun euskararen datuak interpretatzeko zenbait arrasto erakusten dizkigu. Izan ere, Euskal Herriko datuetan eta batez ere EAEkoetan ikusi bezala Zaharren gizataldeak erabiltzen du euskara gutxien. Gainera, beste adin tarteetan euskaldun berri gehiago sortzen dira zaharrenean baino. Beraz, Arrasaten zaharrek biztanlerian pisu handia izateak euskararen erabilera datuak (ikus . orria) azaltzeko zenbait izpi eskainiko dizkigu.

Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako eta helduen hezkuntzako ikasleak, lurralde-eremuaren, mailaren eta irakasteredu elebidunaren arabera. 2006/07

	Haur-hezkuntza(1)			Lehen hezkuntza(2)			Derrigorrezko bigarren hezkuntza(3)			Helduen Hezkuntza (9)			Batxilergoa(4)			Lan
	A-X(6)	B(7)	D(8)	A-X	B	D	A-X	B	D	A-X	B	D	A-X	B(10)	D	
Euskal AE / C.A. de Euskadi	5.478	22.138	57.297	12.402	31.937	59.862	17.132	17.223	34.727	26.862	-	-	15.487	404	14.152	20.000
(T) Gipuzkoa	656	4.693	24.625	949	9.170	25.567	1.025	6.614	15.152	6.455	-	-	3.234	327	6.380	4.800
(C) Deba Garaia / Alto Deba	1	291	2.363	1	539	2.440	24	370	1.698	599	-	-	23	-	809	280
(M) Aretxabaleta	-	95	244	-	87	95	-	59	101	-	-	-	-	-	-	15
(M) Arrasate/Mondragón	-	196	660	-	325	593	11	237	466	231	-	-	23	-	193	80

(1) Maila horretako Haur-Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu

(2) Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia hartzen ditu.

(3) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu maila horrek

(4) Batxilergoa hartzen du

(5) Erdiko eta goiko zikloko LH eta Zereginen Ikaskuntza hartzen ditu.

(6) A: euskara irakasgai bezala. X: ez dute euskara ikasten.

(7) Irakaskuntza elebiduna.

(8) Irakaskuntza osoa euskaraz.

(9) HHn legez irakasteredu elebidunik egon ez arren, estatistika-arrazoiak direla medio eta informazioa ahalik eta

- Deba Garaiko irakastereduak

Deba Garaian araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako eta helduen hezkuntzako 10.268 ikasle daude Helduen Hezkuntzan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan sakabanatuak. Era honetan, ikasleen %9k, 928 ikaslek, A eremuan ikasten du; ikasleen %11,7k, 1200 ikaslek, B eremuan ikasten du; eta, ikasleen %79,3k, 8140 ikaslek, D eremuan ikasten du. A eremuari dagokion zenbatekoa asko putzen du, ordea, Helduen Hezkuntzak; ikasten ari diren heldu guztiak A eremuan ari baitira Deba Garaian. Hau da, A ereduko 928 ikasle horietatik 599 helduak dira eta hauek kontuan hartu gabe asko aldatzen dira emaitzak. Era honetan, hauek kontuan hartu gabe, 329 dira Deba Garaian A ereduko ikasleak, ikasleen %3,4.

16 urte arteko irakaskuntzari erreparatzen badiogu, berriz, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzan 7.727 ikasle ari dira Deba Garaian. Horietatik 26, ikasleen %0,3, A eremuan ari da ikasten; 1.200, %15,6 ikasle, B eremuan eta honek hartzen duen murgiltze eremuan ari dira; eta, 6.501, %84,1 ikasle, D eremuan dabilta.

Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, aldiz, B eremuan ikasteko aukerarik ez dago eta oro har B ereduko ikasleak A eremua betetzen dutela ikusi ahal da. Hala, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan 1.942 ikasle daude guztira eta horietatik 303k, ikasleen %15,6k (16 urte arteko ikasketetan B ereduak ere ikasleen %15,6 hartzen zuen), A eremuan ikasten dute eta 1.639k, ikasleen %84,4k (16 urte arteko ikasketetan ikasleen %84,1 hartzen zuen D-k), D eremuan ikasten dute.

Hori bai, Batxilergoan D eremuan ikasten dutenak Lanbide Heziketan aldean asko direla jabetzen gara. Izan ere, Batxilergoan 832 ikasleetatik 23k soilik, ikasleen %2,8k, ikasten dute A eremuan eta 809 ikasle dira, %97,2, Batxilergoan pasatzean D eremuaren aldeko hautua egiten dutenak. Lanbide Heziketan, berriz, 1.110 ikasle ari dira ikasten eta horietatik 280, ikasleen %25,2 ikasle, ari dira A eremuan eta 830, ikasleen %74,8, dabilta D eremuan.

- Aretxabaletako irakastereduak

Aretxabaletan, bada, taula honetatik ondoriozta dezakegunez, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko 823 ikasle daude herrian bertan ikasten dutenak. Horietatik 567k, %68,9k, D eremuan ikasten dute; 241ek, %29,3k, B eremuan edo, Aretxabaletako euskararen diagnosian zehazten denez, murgiltze eremuan burutzen dituzte ikasketak; eta 15ek, %1,8k, A eremuan ikasten dute. Hemen aipatu beharra dago Aretxabaletan A eremua Lanbide Heziketan bakarrik dagoela eta, ostera, Lanbide Heziketan ez dagoela B eredurik. Lanbide Heziketan B eredurik ez egoteak D eremuaren alde jokatzeko du batez ere.

Izan ere, Lanbide Heziketa kontuan hartu gabe Aretxabaletan dauden 681 ikasleetatik %64,6k D eremua hautatzen baitute eta %35,4k B eremuaren aldeko hautua egiten baitute. Lanbide Heziketan 142 ikasleetatik 15ek %10,6k bakarrik hautatzen du A eremua, eta 127k, %89,4k, D eremua aukeratzen dute. B eredutik, bada, batez ere D eredurako urratsa egiten da, beraz: 16

urte arteko irakaskuntzan %64,6 (440 ikasle) ziren D ereduak eta Lanbide Heziketan % 89,4 dira D ereduak; 24,8 puntu hazi da D ereduak; 16 urte arteko irakaskuntzan B ereduak %35,4 (241 ikasle) ikasle dira eta Lanbide Heziketan A ereduak hautatu dutenak %10,6 dira. Beraz, A ereduak Lanbide Heziketan A ereduari dagokionez %10,6ko gorakada izan badu ere, B ereduari dagokionez, 24,8 puntuko jaitsiera izan du. Bestalde, aretxabaletarrek ez dute Batxilergoa euren herrian ikasteko aukerarik eta gehienak Arrasatera jotzen dute batxilergoa ikastera. Hala ere, ezin da ahanzi B eredutik A eredura erdararen aldeko koska dagoela. Beraz, D ereduak aukeratzen ez duen gutxiengo horrek euskararen eskaileran maila bat atzera egiten du.

- Arrasateko irakastereduak

Arrasaten, bada, Aretxabaletako ikasketa aukerei Batxilergoarena eta Helduen Hezkuntza gehitzen zaie. Arrasaten guztira araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako 3.392 ikasle daude. Horietatik 345ek (Helduentzako Hezkuntza barne), %10,2k, A ereduak ikasten dute. Hemen kontuan hartu beharra dago ehuneko hau asko puzten dutela Helduen Hezkuntzako ikasleek, A ereduak soilik burutzen baitituzte beren ikasketak. Ondoren aurkeztuko ditugun zenbatekoek eta ehunekoek argi uzten dute Helduen Hezkuntza lehenbailehen euskaratu behar dela, helduek ere D ereduak, edo sikiera B ereduak, ikasteko eskubidea dutelako eta hezkuntza euskaratzeaz ari garenean haur eta gaztetxoek hezkuntzaz bakarrik ez garelako ari. Gainera, Helduen Hezkuntzak hurrekin etengabeko hartu-emanen dauden gurasoak, aitona-amonak, etorkinak biltzeko toki aproposak dira. Eta ez da ahaztu behar hauek Euskal Herria euskalduntzeko ezinbesteko eragileak direla. Helduak kontuan hartu gabe 114 dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan A ereduak ikasten dutenak; ikasketa horietako ikasleek %3,6. Askok jaisten da, beraz, A ereduak ikasle kopurua helduak albo batera uzten baditugu.

B ereduak 758 ikasleek ikasten dute, Arrasateko ikasleek (helduak barne) %22,3k edota %24k (helduak kontatu gabe). D ereduak da, ordea, eredurik aukeratuena: 2289 ikasleek ikasten dute bertan; ikasleek %67,5k (helduak barne) edota %72,4k (helduak kontatzeke).

Bestalde, Aretxabaletan bezala, Arrasaten ere Lanbide Heziketan eta Batxilergoan B eredurik ez egoteak D ereduaren alde jokatzeko du. Hemen, lehen aipatu bezala, D ereduak aukeratzen ez duen gutxiengo horrek euskararen eskaileran maila bat atzera egiten duela nabarmendu behar den arren.

Honela, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2.488 ikasle daude eta horietatik 11k (%0,4k) A ereduak ikasten dute, 758 ikasleek (%30,5k) B ereduak ikasten dute eta 1719k (%69,1k) D ereduak. Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, berriz, 673 ikasle daude Arrasaten; horietatik 103k (%15,3k) A ereduak hautatu dute 2006/2007 ikasturtean eta 570ek (%84,7k) D ereduak hautatu dute. Ondorioz, Arrasaten ere Lanbide Heziketan eta Batxilergoan B eredurik ez egoteak, D ereduaren alde jokatzeko du. 16 urteko irakaskuntzan B ereduak ikasleek %30,5, A ereduak %0,4 eta D ereduak ikasleek %69,1 hartzen duen bitartean 16 urtetik gorako irakaskuntzan (Lanbide Heziketan eta Batxilergoan), B eredurik ez egoteak, %15,3k hautatzen du A ereduak eta %84,7k D ereduak. A ereduak, bada,

14,9 puntuko igoera izaten du B eredurik ez egoteagatik eta D ereduak ere 15,6ko hazkuntza izaten du. Beraz, gutxigatik (0,7 puntugatik) bada ere B eredurik ez egoteak balantza D ereduaren alde mugitzen du.

Hala ere, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako datuak bereiz aztertuz gero hainbat ñabardura egin beharrean aurkitzen gara. Izan ere, Lanbide Heziketan A ereduaren aldeko hautua Batxilergoan baino handiagoa izan da: %17,5ek, 80 ikaslek, A eredu hautatu dute (16 urte arteko B ereduko ikasleen %30,5 horren erdiak baino gehiagok) eta %82,5ek D eredu hautatu dute. Era honetan 16 urte arteko irakaskuntzatik Lanbide Heziketara A eredu %0,4tik %17,5era, 17,1 puntu, hazten da eta D eredu %69,1etik %82,5era, 13,4 puntu, hazten da. 16 urte arteko irakaskuntzatik Batxilergora, aldiz, A eredu %0,4tik %10,6ra, 10,2 puntu, hazten da eta D eredu %69,1etik %89,4ra, 20,3 puntu, hazten da. Beraz, Batxilergoko D ereduko datuak Lanbide Heziketakoak baino hobeak dira. Hau, ziurrenik, Aretxabaletan eta eskualdeko beste herrietan Batxilergoa ikasteko aukerarik ez dagoelako eta herri hauetan irakastereduak euskaldunagoak direlako da. Beraz, Arrasateko Batxilergoko D ereduaren datu onak eskualdeko ikasleei zor zaizkie hein handi batean.

Amaitzeko, Arrasateko Udalaren web orrian, Mondragon Unibertsitateko Injinerutza Eskolako datuak ere eskuratu ditugu eta horiez ere jardungo gara.

	INJINERUTZA ESKOLA. Matrikulazioak %tan		
	A eredu	B eredu	D eredu
1982-1983 ikasturtea	100	-	-
1993-1994 ikasturtea	67	-	33
2000-2001 ikasturtea	46	-	54

Taula honetan argi ikusten den bezala, beraz, 18 urtean Injinerutzako matrikulak, irakastereduei dagokienez, irauli egin dira. 1982-83 ikasturtean A irakasteredua soilik izatetik eta ikasleen %100 irakasteredu horretan ikasten izatetik; 2000-01 ikasturtean ikasleen gehiengoa, %54, D eredu ikasten izatera pasa da. Hori bai, Injinerutza Eskolaz ari garenean, noski, ez dira arrasatearrak eta Deba Garaia eskualdekoak soilik kontuan izan behar; Gipuzkoatik eta Euskal Herri guztitik etorritako ikasleak baitaude bertan, baita atzerrikoak ere.

Euskalduntze-alfabetatzearen bilakaera Aretxabaletan eta Arrasaten

Euskalduntze-alfabetatzearen bilakaera Aretxabaletan

	Euskalduntzea	Alfabetatzea	Guztira
1986-87	83	9	92
1991-92	134	11	145
1996-97	100	-	100
1999-2000	165	52	217
2001-02	129	28	157

Iturria: **HABE**, Aretxabaletako Udaleko web orritik hartua

Aretxabaletan euskalduntze alfabetatzeak indarrean dirau eta ez du pisu guztia eskolaren gain utzi. Honela, bada, 1996-1997 eta 1986-1987 ikasturtea izan dira azken 21 urteotako (azken

urteotako daturik ezin izan dugu eskuratu) ikasle gutxien hartu duten ikasturteak; baina beroietan ere 100 aretxabaletar inguru jardun dira euskalduntze-alfabetatzean. Bestela, urtero 145 bat ikasletik gora bildu dira Aretxabaletan. Euskal Herrian joera bestelakoa bada ere (NON), Aretxabaletan euskalduntzen eta alfabetatzen ari direnak gora doaz, kopuru absolutuetan.

Alfabetatzeak ere 1986tik 1997ra desagertzeko joera erakusten bazuen ere, 1996-1997ko etenaldiak erakusten duen modura, azken urteotan susperraldia izan du.

Aretxabaletan euskalduntzen edota alfabetatzen ari diren herritarrek Erdu AEKn (Arrasatekoaren adarra), Leintz Udal Euskaltegian (Aretxabaletakoa) edota Arrasateko Udal Euskaltegian ikasten dute.

- **Euskalduntze-alfabetatzearen bilakaera Arrasaten**

	Euskalduntzea	Alfabetatzea	Guztira
1983-1984	414	162	576
1986-1987	340	99	439
1991-1992	487	96	573
1996-1997	474	63	537
1999-2000	629	115	744

Iturria: HABE. Arrasateko Udaleko web orritik hartua

Arrasaten ere, euskaltegi-tako ikasleak ugaritu egin dira 1983tik 2000ra bitartean (ez dugu datu berriagorik lortu). Hemen bai ikusten da alfabetatzeko taldeak gero eta txikiagoak direla; 1983-84an 113 ikasle izatetik 1999-2000n 31 izatera pasa dira, 1991-92 ikasturtean talderik gabeko ikasturtea izan ondoren.

Taula honetan aipatzekoa da ere, bi euskaltegien arteko joko edo konpetentzia ere. Izan ere, 1983-84 ikasturtean Erduk biltzen zituen ikasle gehienak. 1986-1987n ikaslez parekatuta ibili ostean, ordea, Udal Euskaltegiak hartu zituen ikasle gehienak 1996-97n eta 1999-2000n.

Hemen eta hurrengo taulan kontuan izan behar dugu, Arrasateko ikasle guztiak ez direla arrasatearrak. Arrasateko eskaintza zabalagoatik edota eguna Arrasaten pasatzeagatik Arrasaten ikasten duten eskualdeko ikasle asko baitago.

Ohiko taldeak eta enpresetako taldeak Arrasaten

Erdu AEK	99	-	99
1996-1997	453	84	537
Udal Euskaltegia	254	84	338
Erdu AEK	199	-	199
1999-2000	494	250	744
Udal Euskaltegia	357	100	457
Erdu AEK	137	150	287

Arrasaten oso errotuta dagoen beste gertaera bat, enpresetako langileei enpresan bertan eta euren lanordu batzuetan, gehienetan, euskara irakastearena da. Era honetan, Arrasateko euskaltegiek ohiko taldeez gain enpresetako taldeak ere badituzte.

Hasieran apal hasi baziren ere talde hauek 80-84 ikaslerekin, 1999-2000 ikasturtean hirukoiztu egin da talde hauetako ikasle kopurua; oraindik ere ohiko taldeetako ikasleen (494 ikasle ohiko taldeetan) kopuruaren erdia (250 ikasle enpresetan) doi-doi pasatzen badu ere. Azken ikasturte honetan, gainera, aurreko bietan ez bezala, Erdu euskaltegia ere hasi da talde hauek euskalduntzeko lanetan.

Biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren arabera, lurralde-eremuka. 2001.

	<i>Guztira</i>	<i>LANE Aktiboak</i>					<i>LANE Ezaktiboak</i>	<i>Aparte kontatuak</i>
		<i>Guztira</i>	<i>LANE Okupatuak</i>	<i>LANE langabeak</i>				
				<i>Guztira</i>	<i>Lehen enplegua</i>	<i>Lanik egin dutenak</i>		
Euskal AE / C.A. de Euskadi	2.082.587	975.773 / %46,9	862.407	113.366	25.455	87.911	1.106.814 / %53,1	-
(T) Gipuzkoa	673.563	323.074 / %48	291.606	31.468	5.856	25.612	350.489 / %52	-
(C) Deba Garaia / Alto Deba	62.010	30.991 / %50	28.777 / %92,9	2.214 / %7,1	480 / %21,7	1.734 / %78,3	31.019 / %50	-
(M) Aretxabaleta	6.184	3.227 / %52,2	3.043 / %94,3	184 / %5,7	53 / %28,8	131 / %71,2	2.957 / %47,8	-
(M) Arrasate/Mondragón	23.118	11.571 / %50,1	10.608 / %91,7	963 / %8,3	167 / %17,3	796 / %82,7	11.547 / %49,9	-

(*) *Udalerrri dasanexionatuak, eta beraz ez daukagu horiei buruzko daturik erreferentziako datan. Udalerrri horien datuak desanexionatu aurretik osatzen zuten udalerrriaren barnean emanak aurkitzen dira.*

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua. 2001

Deba Garaian (%50), bada, Euskal Autonomia Erkidegoan (%46,9) eta Gipuzkoan (%48) baino langile aktibo gehiago dago, kopuru erlatiboetan. Arrasaten eta Aretxabaletan, gainera, Deba

Garaiko kopuru hori gainditu egiten da; %50,1 eta %52,2 langile aktibo dituzte hurrenez hurren.

Datu hauek euskararen egoerarekin zerikusirik baduten galdetuko du zenbaitek. Bada, lan-mundua zenbaitetan euskalduntzetik at utzitako esparrua izatean badu zerikusia. Hala ere, ez da Deba Garaiko eta Arrasate eta Aretxabaletako, zehazki, egoera. Lan mundua euskalduntzeko lehen ekimenak hemen abiatu baitziren. Beraz, langile aktiboak euskara ikasteko edota hobetzeko plangintzetan sartuta daudela ziurtatu daiteke ibar honetan. Hala ere, ikerketa honen gaia ez izatean, hemen utziko dugu.

2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2006

	Guztira	Euskaldunak ¹				Ia-euskaldunak				Erdaldunak
		Guztira	Alfabetatuak	Erdizka alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Guztira	Alfabetatuak	Alfabetatugabeak	Pasiboak	
Euskal AE / C. A. de Euskadi	2.072.541	774.894	642.512	113.922	18.460	458.939	287.400	82.021	89.518	838.700
(T) Gipuzkoa	666.763	352.999	293.354	52.224	7.421	136.609	76.062	31.802	28.745	177.150
(C) Deba Garaia / Alto Deba	59.341	37.879 / %63,8	30.922 / %81,7	6.101 / %16,1	856 / %2,2	10.060 / %17	4.684 / %46,6	2.755 / %27,4	2.621 / %26	11.402 / %19,2
(M) Aretxabaleta	6.312	3.945 / %62,5	3.109 / %78,8	749 / %19	87 / %2,2	1.188 / %18,8	479 / %40,3	330 / %27,8	379 / %31,9	1.179 / %18,7
(M) Arrasate / Mondragon	21.359	11.676 / %54,7	9.699 / %83,1	1.694 / %14,5	283 / %2,4	4.113 / %19,2	2.014 / %49	1.051 / %25,6	1.048 / %25,4	5.570 / %26,1

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika (2006)

Taula honetan, berriz, hiztunen tipologiari buruzko datuak jasotzen dira. Era honetan, bai Aretxabaletan (%62,5) eta bai Arrasaten (%54,7), euskaldunak Deba Garaia eskualdean (%63,8) baino gutxiago direla nabarmendu behar da. Hala ere, euskaldunak eta ia euskaldunak multzo berean sartuz gero, Aretxabaletako euskaldunak eta ia euskaldunak Aretxabaletako biztanleen %81,3a osatzen dutela jabetzen gara eta Deba Garaiko euskaldunak eta ia euskaldunak kopuru honen azpitik daudela, %80,8 baitira. Multzo honetan ere Arrasate beste bien aldean behean dago; arrasatearren %73,9 da euskalduna edota ia euskalduna.

Hala ere, Arrasateko euskaldunen eta ia euskaldunen artean, kopuru erlatiboetan jakina, alfabetatu gehiago dago Deba Garaian eta Aretxabaletan baino. Era honetan, Arrasateko

euskaldunen %83,1 eta ia euskaldunen %49a da alfabetatua. Aretxabaletan, ostera, euskaldunen %78,8 eta ia euskaldunen %40,3 da alfabetatua. Deba Garaian, azkenik, euskaldunen %81,7 eta ia euskaldunen %46,6 da alfabetatua. Honek, Arrasateko euskaldunak eta ia euskaldunak hitzun osoago, AB hitzunak, direla edota izateko bidean daudela adierazten du. Ahozko erabilera traketsak ondorio hau zaputz badezakete ere.

Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera. 2006

	Guztira	Ama-hizkuntza				Etxean erabiltzen den hizkuntza			
		Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat	Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
Euskal AE / C.A. de Euskadi	2.129.339	413.452	1.561.220	99.084	55.583	284.780	1.647.395	174.068	23.096
(T) Gipuzkoa	686.665	251.552	374.469	45.075	15.569	177.270	408.692	94.315	6.388
(C) Deba Garaia / Alto Deba	60.954	29.805 / %48,9	26.229 / %43	3.823 / %6,3	1.097 / %1,8	22.344 / %36,6	27.787 / %45,6	10.481 / %17,2	342 / %0,6
(M) Aretxabaleta	6.524	3.009 / %46,1	2.960 / %45,4	442 / %6,8	113 / %1,7	2.437 / %37,4	3.080 / %47,2	969 / %14,8	38 / %0,6
(M) Arrasate/Mondragón	21.869	8.206 / %37,5	11.847 / %54,2	1.516 / %6,9	300 / %1,4	5.652 / %25,8	12.496 / %57,1	3.631 / %16,6	90 / %0,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleria eta etxebizitza estatistika (2006)


Ama hizkuntza eta etxean hitz egiten den hizkuntzari buruzko datuak biltzen dituen taula honetan, Aretxabaletan eta Deba Garaian, orokorrean, ama hizkuntza euskara dutenak gehiago direla ikusten dugu: ama hizkuntza euskara aretxabaletarren %46,1ek du, ama hizkuntza gaztelania dutenak herritarren %45,4 dira, ama hizkuntzatzat gaztelania eta euskara dituztenak %6,8 dira eta ama hizkuntza gisa beste hizkuntza bat dutenak herritarren %1,7 dira. Deba Garaian euskara ama hizkuntzatzat dutenak Aretxabaletan baino zertxobait gehiago dira, eskualdekoen %48,9, gaztelania ama hizkuntza dutenak %43 dira, biak ama hizkuntza dituztenak %6,3 dira eta beste hizkuntzaren bat ama hizkuntzatzat dutenak %1,8 dira. Arrasaten, ostera, gaztelania ama hizkuntzatzat dutenek (%54,2) -16,7ko diferentzia ateratzen diete ama hizkuntza euskara dutenei (%37,5); ama hizkuntzatzat gaztelania eta euskara dituzten arrasatearrak, bestetik, %6,9 dira eta ama hizkuntzatzat beste hizkuntzaren bat dutenak %1,4 dira. Hemen Arrasateko eskualdeko imigrante kopururik handienetakoa izanda (ikus . orria) bitxia egiten da euskara eta gaztelania ez den hizkuntzaren bat ama hizkuntzatzat dutenen kopurua eskualdekoaren azpitik egotea.

Jakina denez, Arrasateko herritarren ama hizkuntzari buruzko datuek izugarriko eragina dute etxean hitz egiten den hizkuntzaren datuekin. Era honetan, Arrasaten etxean euskaraz egiten

dutenak herritarren %25,8 dira, Deba Garaiko batez bestekoa (%36,6) baino 10,8 puntu gutxiago eta aretxabaletarren (%37,4) baino 11,6 puntu gutxiago. Beraz, euskara ama hizkuntza dutenen kopurua txikiagoa izateak etxean euskara erabiltzen dutenen kopurua jaitea dakar. Honek garbi erakusten du ama hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren artean dagoen lotura estua. Bestalde, etxean gaztelania erabiltzen dutenak %57,1 dira Arrasaten, %47,2 dira Aretxabaletan eta %45,6 dira eskualde osoan.

Etxeko hizkuntzat euskara eta gaztelania dituztenak eskualdekoen %17,2 dira, arrasatearren %16,6 eta aretxabaletarren %14,8. Beraz, Aretxabaletan dago etxean bi hizkuntzak nahasteko joera gutxien. Ama hizkuntzat euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza bat dutenak, berriz, eskualdekoen zein aretxabaletarren %0,6 dira eta arrasatearren %0,5a. Beste hizkuntza hauen etxeko erabilera ere asko urruntzen da ama hizkuntzaren datuetatik. Era honetan, ama hizkuntzat beste hizkuntza duten eskualdeko %1,8tik %0,6k erabiltzen du etxean, beste hizkuntza ama hizkuntzat duten %1,4 arrasatearretatik 0,5ek erabiltzen du etxean eta beste hizkuntza bat ama hizkuntzat duen aretxabaletarren %1,7tik %0,6k erabiltzen du hizkuntza hori etxean. Hau, noski, normalean gazteenen, integratze nahien ondorioz gertatzen da edota baita familiako kideren bat ama hizkuntzat euskara edo gaztelania duena izatearen ondorioz ere.

EUSKAREN KALE ERABILERARI BURUZKO DATUAK

Debagoiena 

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1993	40.1	55.4	38.4	31.0	42.8		
1997	40.7	55.7	46.9	29.6	40.2	44.3	39.7
2001	43.7	61.3	50.1	33.0	39.5	47.5	44.3

1993tik 2001era arteko euskararen erabileraren kale neurketetan Deba Garaian euskara esparruak eta kalea irabaziz doala ikusten da: 1993an neurtutako erabilera %40,1ekoa zen, 1997an %40,7koa zen eta 2001ean neurtutako kale erabilera %43,7koa zen, 3 puntu hasi zen azken lau urteetan.

Datu hauek adin taldeka aztertzen baditugu, berriz, igoerarik nabarmenena gazteen gizataldeak izan duela ikusten da, 8 urtean 11,7 puntuko igoera izan du euskararen erabilerak gazteen artean: 1993an %38,4koa zen, 1997an %46,9raino (8,5 puntu, 4 urtean) hazi zen eta 2001ean %50,1era iritsi zen.

Haurrak dira euskararen erabilera igoarazi duten beste taldea, igoera apalagoa izan den arren: 5,9 hazi da 8 urtean. Hala ere, haurrak jarraitzen dute Deba Garaian euskara gehien erabiltzen duten gizataldea izaten, kaleko elkarrizketen eta bakarrizketen %61,3 euskaraz eginez. Beraz, honakoa izan da bilakaera 8 urtean: 1993an haurren kaleko jardunaren %55,4 euskaraz jaso zen, 1997an kaleko jardunaren %55,7 jaso zen euskaraz (0,3 puntuko igoera, 4 urtean) eta 2001ean kaleko jardunaren %61,3 jaso zen euskaraz.

Helduek ere kaleko euskararen erabileran gora egin dute, 8 urtean 2 puntuko igoera izan du euren euskararen erabilerak. 1993an helduen %31 aritu zen euskaraz neurtuta burutu zenean; 1997an, oster, %29,6 aritu ziren euskaraz neurtzen ari zirenean eta euskararen erabilerak 1,4 puntu egin zuen behera; 2001ean, azkenik, jasotako elkarrizketen eta bakarrizketen %33 izan zen euskaraz, 4 urtean euskararen erabilera 3,4 puntu haziz.

Zaharren gizataldea, ordea, EAEko eta Euskal Herri guztiko joerari jarraituz, euskararen kale erabileran (baita ezagutzan ere) behera doa, 8 urtean 3,3 puntu jaitsi da. 1993an zaharren elkarrizketa eta bakarriketen %42,8 ziren euskaraz, 1997an elkarrizketa hauek %40,2ra (2,6 puntu, lau urtean) apaldu ziren eta 2001ean zaharren hizketaldien %39,5 (0,7 gutxiago, lau urtean) izan ziren euskaraz.

Euskararen erabilerari sexuaren aldagaitik begiratzen badiogu, Deba Garaian, 1997tik 2001era, bai emakumeek eta bai gizonak euskararen erabileran gora egin dutela jabetzen gara: emakumeak 3,2 puntuko igoera izan dute lau urtean eta gizonek 4,6 puntuko igoera izan dute lau urtean. Gizonen erabilera gehiago hazi bada ere, emakumeen erabilerak gizonen gainetik jarraitzen du: 2001ean emakumeen hizketaldien %47,5 jaso ziren euskaraz eta gizonen hizketaldien %44,3 jaso ziren euskaraz.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ARRASATEN (1988-2007)

Aldia	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	GUZTIRA
1988-1990	23	12	11	25	14
1991-1995	36	19	17	27	22
1996-2000	42	33	23	22	30
2001-2005	47	40	28	26	32
2006-2007	48	37	30	19	31

Iturria: Arrasateko Udalak 1988-2007 aldian egindako neurketetako datuak. 2001-2007 aldian datu ponderatuak erabili ditugu.

Deba Garaiko eskualde-buru den herrira, Arrasatera, pasatzen bagara, Deba Garaia eskualde osoan aldean emaitza kaskarrak jasotzen ditu euskararen kale erabilerak. Deba Garaian 2001ean jasotako batez besteko erabilera %43,7koa da eta Arrasaten 2001-2005 aldiko batez besteko erabilera %32koa; 11,7 puntu jaisten da eskualdeko batez besteko erabilera, beraz, eskualdeburuan. Hau ulertzeko, jakina, eskualdean aldean Arrasaten euskararen ezagutza baxuagora dagoela, atzerritar gehiago biltzen direla, biztanleria zaharragoa dela ... gogoratu behar dugu.

Arrasaten haurrak dira euskara gehien erabiltzen duten gizataldea, kaleko hizketaldien %48 euskaraz egin zituzten 2006-2007 aldian. 1988-1990 (19 urtean) alditik, gainera, beren euskararen erabilera bikoiztu egin da (%23tik %48ra pasa da) eta ez du urte bakar batean ere makalaldirik izan. Haurren erabilerak, beraz, 25 puntuko igoera izan du Arrasaten, eskualdeko igoeraren aldean handia (1993tik 2001 arte 5,9 puntuko igoera).

Gazteen artean izan du, ordea, Arrasateko euskararen kale erabilerak igoerarik nabarmenena: 1988-1990 alditik 2006-2007 aldira, 19 urtean, hirukoiztu egin dira gazteen euskarazko hizketaldiak (%12tik %37ra pasa dira). Hala ere, 2001-2005 alditik 2006-2007 aldira makalaldi txiki baten berri ere eman behar da, %40tik %37ra (3 puntu) jaitsi baita. Gazteen erabilerak, beraz, 9 urtean Arrasaten 25 puntuko igoera izan du, haurrenak bezala; eskualdean, ostera, gazteen erabilerak 11,7 egin du gora 8 urtean.

Helduengan ere asko egin du euskararen kale erabilerak gora, hauek ere 9 urtean euskarazko hizketaldien kopurua hirukoizteko bidean (%11tik %30era pasa dira) jarri baitira, oraindik hirukoiztera iritsi ez diren arren. Helduen erabilerak 1988tik 2007ra +19 puntuko igoera izan du; eskualdean, berriz, 1993tik 2001era (8 urtean) +2 puntuko bilakabidea izan du.

Adinekoena da Arrasaten ere, eskualdean bezala, euskarazko hizketaldi gutxien jaso zaizkion adin tartea. 1991-1995 aldian eta 2001-2005 aldian goranzko joera erakutsi bazuen ere, 1988tik 2007ra (19 urtean) -6 puntuko jaitsiera izan du. Deba Garaian, ostera, 1993tik 2001era (8 urtean) zaharren erabilerak -3,3 puntu egin duela behera ikusi dugu.

Ez dugu lortu sexuaren araberako kale neurketaren daturik Arrasaten.

ARETXABALETAKO EUSKARAREN ERABILERA

Euskararen KALEKO ERABILERA (2003)	Euskararen EZAGUTZA (01)
% 42,6	% 64,9
Neurtutako hiztun kopurua	Aretxabaletako hiztun kopurua (01)
2.889 (herritarren % 48)	6.018

Aretxabaletako kale erabilera 2003an %42,6koa izan zela erakusten du taula honek; 2001eko ezagutza datuetan bildutako euskaldunen %64,9 horietatik, bada, %42,6k erabili zuten euskara neurketaren egunean. Era honetan, 2003ko euskararen erabileraren eta 2001eko hizkuntza gaitasunaren arteko indizea %0,66koa da. Hau da, euskara dakitenek izan zituzten hizketaldietatik %66 izan ziren euskaraz.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ARETXABALETAN (1990-2003)

Aldia	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Guztira
1990	69,3	43,2	35,6	60,2	43,6
1991	63,1	39,5	24,9	51,6	38,9
1996	58,2	57,6	31,3	49,1	44,3
1998	65,2	63	31,2	45,2	43,3
2000	72,1	80,1	40,1	43,2	52
2001	76,5	60,9	39,7	58,2	54,5
2003	58,2	58	32,9	32,6	42,6

Iturria: Aretxabaletako Udaleko web orria

Adinez adineko datuetara pasatzen bagara, berriz, Aretxabaletan 13 urtean gazteen gizataldean bakarrik igo dela euskararen erabilera jabetzen gara. Hala ere, 2002ra arte haurrek eta helduek ere gora egin dute euskararen erabileran. Kale neurketan, izan ere, Martinez de Lunak zioenaren haritik (BAT:2007), zoriak paper oso garrantzitsua hartzen du: nahikoa da familia erdaldun bateko hileta elizkizun bat edota kanpoko bisitari talde bat kale neurketako datuak hankaz gora jartzeko.

Haurren euskararen kale erabilerak 1990etik 2001era 7,7 puntuko igoera izan du, 1996an 11,1 (%58,2ra jaitsiz) puntuko beheraldia ere izan zuen arren. 2003an, ordea, 2001eko neurketako %76,5etik %58,2ra (18,3 puntu) jaitsi dira haurren euskarazko hizketaldiak. Honi azalpena bilatzen hasi aurretik beste adin tarreetan zer gertatzen den ikusiko dugu.

Gazteen artean ikusten da 1990etik 2003ra euskararen gorakadarik garbiena: %43,2tik %58ra pasa da euskararen erabilera. 1996an, haurretan ez bezala, gazteetan euskararen erabilerak gorakada nabarmena izan zuen (18,1 puntu igoz 5 urtean) eta baita 2000. urtean ere, bi urtean

17,1 puntu haziz. 2000etik 2001era, ordea, 19,2 puntu jaitsi zen gazteen kale erabilera, 2000ko datuen zorizkotasuna agerian jarritz. Honen froga da 2003an gazteen hizketaldien %58 jaso zela euskaraz. Gazteen euskararen erabilerak, beraz, gorabehera handiak izan ditu Aretxabaletan 13 urtean.

Helduen euskararen kale erabilera, berriz, haziz joan da 2000. urtera arte, 1998an -0,1eko jaitsiera txiki bat izan bazuen ere. Bestalde, aitortu beharra dago 2000ko neurketan helduen erabilerak igoera handia, 8,9 puntukoa, izan zuela; baina 2001eko datua 40,1 horretatik hurbil dagoenez, ezin utzi daitezke 2000ko %40,1eko erabilera hori eta 2001eko %39,7ko erabilera hori halabehararen esku. Beraz, 2001ean 0,4 puntuko jaitsiera izan zuen helduen euskararen erabilerak eta 2003an 2001ean irekitako bidean urak asko egin duela aurrera ikusten da: 2003an neurtutako euskarazko hizketaldien %32,9 izan da euskaraz, 2001ean baino -6,8 gutxiago eta 1990ean baino -2,7 gutxiago. Bada kezkatzeko arrazoirik, beraz.

Adinekoen euskararen erabilerak ere nabarmen egin du behera, 13 urtean %60,2tik %32,5era, ia erdira, jaitsi da. Hala ere, 2001ean igoera oso handia, %43,2tik %58,2ra (15 puntukoa), eta 2003an jaitsiera handia, %58,2tik %32,6ra (25,6 puntukoa) egon izanak datuetan halabeharrek eragin duela salatzen du. Hala ere, 2003ko adinekoen euskara erabileraren datuak helduen erabileraren pare samarrean daude; beraz, honek 2003koa jaitsiera erreala izan dela ere adieraz lezake, eskualde osoan adinekoen erabilerak behera egin baitu.

Biztanleria osoa kontuan hartuta, ordea, 1990etik 2003ra euskararen kale erabileran gorabehera gutxi gertatu direla dirudi: 1990ean hizketaldien %43,6 izan ziren euskaraz eta 2003an hizketaldien %42,6. Urtez urteko datuei erreparatu gero, ordea, gorabehera handiagoak ikusten dira: 1990etik 1991ra -4,7 (%43,6tik %38,9ra) jaitsi zen euskararen erabilera, 1991tik 1996ra +5,4 (%38,9tik %44,3ra) igo zen euskararen erabilera, 1996tik 1998ra -1 (%44,3tik %43,3ra) beheratu zen euskararen erabilera, 1998tik 2000ra +8,7 (%43,3tik 52 puntura) hazi ziren euskarazko hizketaldiak, 2000tik 2001era +2,5 (%54,5eraino) hazi ziren euskarazko hizketaldiak eta 2001etik 2003ra -11,9 (%42,6raino) jaitsi ziren euskarazko hizketaldiak. Beraz, 2000 eta 2001ean euskararen kale erabilerak izan zuen susperraldia baretu dute 2003ko datuek. 2003tik aurrerako datuak behar genituzke joera horren norabidea zehazteko, ordea. Momentuz, beraz, adin talde guztietan 2000 eta 2001 urteetako erabilerarekiko beherakada handia erakutsi dutela 2003ko erabilera datuek bakarrik esan dezakegu.

Eta haurren gizataldean 2001etik 2003ra jazo den 18,3 puntuko jaitsiera izugarri hori ere, halabeharretik baino eguneroko gordinetik hurbilago dagoela erakutsi digute gainerako adin tarteetan euskarazko erabilerak. Hori bai, baliteke 18,3 puntu baino jaitsiera txikiagoa izatea eta neurtu zen eguneko zoriak datu hori putzea. Hala ere, adin tarterik euskaldunenean hainbesteko beherakada izatea larria da.

EUSKARAREN KALE ERABILERA ARETXABALETAN SEXUAREN ARABERA 2003AN

	Euskaraz	Beste hizkuntza batean
Gizonezkoak	%36,6	%63,4
Emakumezkoak	%33,4	%66,6

Iturria: Aretxabaletako Udalaren web orria

Aretxabaletan Euskal Herrian, EAEn eta eskualdean ez bezala 2003an (%36,6) gizonezkoek hizketaldi gehiago egin dituzte euskaraz kalean, emakumezkoek (%33,4) baino. Gizonezkoek +3,2 puntuko aldea ateratzen die emakumeei Aretxabaletan neurtutako euskarazko hizketaldietan. Deba Garaian, ostera, 2001eko gizonezkoen erabilera (%44,3) -3,2 puntu txikiagoa da emakumeena (%47,5) baino. Hala, Aretxabaletako emakumeen erabilera eskualdeko emakumeena baino 14,1 puntu txikiagoa da eta Aretxabaletako gizonen erabilera eskualdekoena baino 7,7 baxuagoa da.

ARETXABALETAKO ETA ARRASATEKO HIZKUNTZA EGOERAZ ZENBAIT ONDORIO

Lan honen helburuetako bat ahozko erabileraren aldetik desberdinak ziren eskualde bereko bi herri aztertu eta beroietako euskararen erabilera desberdinak hizkuntza normalizazioan nola eragiten zuen aztertzea bazen ere, ikergaia eta ikermoldea zertxobait aldatu behar izan dut. Izan ere, Arrasate eta Aretxabaletan euskararen ezagutza maila ezberdinak daude eta hein handi batean horiek eragiten dute euskararen erabileraren ezberdintasuna, elebidunen portzentajea txikiagoa izateak Arrasaten (ondorioetan sakonago azalduko dugu).

Era honetan, Arrasateko euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko indizea 0,57 da eta Aretxabaletakoa 0,68koa. Era honetan, euskaldunak Aretxabaletan euskararekiko leialago badira herria txikiagoa izatean, herritar bakoitzarengana zein hizkuntzatan zuzendu badakitelako izan daiteke. Arrasaten, ostera, 20.000 biztanletik gorako herria izatean, herritar gutxiago ezagutzen dira eta ezagutzen ez den herritar batengana zuzentzean ez da sarri zein hizkuntza erabili jakiten eta honelakoetan jendeak gaztelaniaren aldeko hautua egiten du askotan.

Osterantzean, eskoletako hizkuntza ereduen desberdintasunak ditugu.

- ✓ Aretxabaletan ez dago 16 urte arteko irakaskuntzan A ereduan ikasteko aukerarik, Arrasaten bai, ostera: %0,4k aukeratu dute 2006/2007 ikasturtean.
- ✓ Aretxabaletan B ereduak Arrasaten baino indar gehiago du. Aretxabaletan %35,4k ikasten dute B ereduan eta Arrasaten %30,5ek.
- ✓ D ereduak, bada, 16 urte arteko irakaskuntzan indar handiagoa du Arrasaten (%69,1) Aretxabaletan (%64,6) baino. Lanbide Heziketan, ordea, Aretxabaletan gehiago dira D ereduak aukeratzen dutenak (%89,4) Arrasaten (%17,5) baino.

5. GASTEIZKO ETA IRUÑEAKO EUSKARAREN EGOERA

Sarreran aipatu dugun bezala Euskal Herriko hego isurialdeko bi hiriburu hauen euskararen inguruko datuak konparatuz euskararen aldeko hizkuntza politika batek lortu ditzakeen aurrerapausoak eta euskararen aurkako edo ez aldeko hizkuntza politika batek behartzen dituen itzulinguruak azaltzen saiatuko gara. Iruñea Nafarroako hizkuntza bilakaeran hizkuntza politikaren eragina aztertzeko hautatu dut eta Gasteiz Iruñeak demolinguistikoki gertuen duen hiriburua delako. Horretarako Euskararen Datu Basean, Euskararen Adierazleen Sistemari, V. Kale Neurketan eta Hizkuntza Borroka Euskal Herrian liburuan biltzen diren datuak erabiliko ditugu.

Hala ere, atal hau nahi baino laburragoa geratu da nahi genituen esparru guztietako Iruñeko eta Gasteizko datuak biltzea ez dugulako lortu beti. Izan ere, elkarte autonomo desberdinak izatean, estatistika erakunde ezberdinak baitituzte eta estatistika erakunde hauek bakoitzak bere erritmoa eta irizpideak baitituzte.

Besterik gabe, Gasteizko eta Iruñeko biztanleriaren ezaugarriak, euskararen ezagutza datuak, irakaskuntzako matrikulak ereduaren arabera eta kale erabilerak aztertzerara pasako gara.


GASTEIZKO BIZTANLEAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA (2001)

	Biztanleria orotara	Gizonak	Emakumeak
Guztira	216.852 %100	106.428 %49,1	110.424 %50,9
Haurrak (0-14)	28.424 %13,1	14.523 %51,1	13.901 %48,9
Gazteak (15-24)	30.936 %14,3	15.780	15.156
Helduak (25-64)	126.411 %58,3		
Zaharrak (>=65)	31.082 %14,3		

Iturria: Euskal Adierazleen Sistema

IRUÑEKO BIZTANLEAK, SEXUAREN

	Biztanleria orotara
Guztira	183.967 %100
Haurrak (0-14)	24.007



	%13	%51,3	%48,7
Gazteak (15-24)	23.131 %12,6	11.749 %50,8	11.382 %49,2
Helduak (25-64)	104.095 %56,6	50.736 %48,7	53.359 %51,3
Zaharrak (>=65)	32.731 %17,8	13.117 %40,1	19.614 %59,9

Iturria: Euskal Adierazleen Sistema

Bi hiriburuetan biztanleen gehiengoa emakumea da eta bietan haurren eta gazteen artean gehiago dira gizonak eta bi hiriburuetan helduen eta zaharren artean gehiago dira emakumeak.

Gasteizek Iruñeak baino biztanle zertxobait gazteagoak ditu: 0-24 urte bitartekoak %27,4 dira Gasteizen eta %25,6 Iruñean.

Euskararen ezagutza. Arabako Lautada, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Arabako Lautada	2001	15,1	25,6	59,3

Lurraldea	Urtea	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Arabako Lautada	2001	33.781	57.066	132.452

EDB 1.0

Euskararen ezagutza. Iruña, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Iruña	2001	9,0	11,0	80,1

Lurraldea	Urtea	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Iruña	2001	25.148	30.867	224.936

EDB 1.0

Euskararen ezagutzari buruzko 2001eko datuetan Arabako Lautadan euskaldunak 15,1 direla, ia euskaldunak %25,6 direla eta erdaldunak biztanleen %59,3 direla ikusten da. Hau da, Arabako Lautadakoen gehiengoa oraindik erdalduna den arren euskara gero eta jende gehiagok daki.

Iruñean, ostera, hiritarren %80,1 erdalduna da, %11 da ia euskalduna eta 9 da euskalduna. Iruñean euskaraz egin nahi izanez gero, bada, solaskide euskalduna topatzeko aukera ez da 10etik 1era ere iristen. Solaskide erdalduna topatzekoa, aldiz, 10etik 8koa da.

Euskararen ezagutza, adinaren arabera. Arabako Lautada, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Haur euskaldunak	Haur ia-euskaldunak	Haur erdaldunak	Gazte euskaldunak	Gazte ia-euskaldunak	Gazte erdaldunak	Heldu euskaldunak
Arabako Lautada	2001	43,1	39,5	17,4	29,1	48,8	22,1	

Lurraldea	Urtea	Haur euskaldunak	Haur ia-euskaldunak	Haur erdaldunak	Gazte euskaldunak	Gazte ia-euskaldunak	Gazte erdaldunak	H euskaldunak
Arabako Lautada	2001	10.510	9.639	4.257	9.448	15.842	7.164	

EDB 1.0

Euskararen ezagutza, adinaren arabera. Iruña, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Haur euskaldunak	Haur ia-euskaldunak	Haur erdaldunak	Gazte euskaldunak	Gazte ia-euskaldunak	Gazte erdaldunak	H euskaldunak
Iruña	2001	19,8	14,3	65,9	13,6	10,2	76,2	

Lurraldea	Urtea	Haur euskaldunak	Haur ia-euskaldunak	Haur erdaldunak	Gazte euskaldunak	Gazte ia-euskaldunak	Gazte erdaldunak	H euskaldunak
Iruña	2001	7.131	5.161	23.762	5.119	3.841	28.627	

EDB 1.0

Iruña eta Gasteizek, duela 30 bat urte, euskararen aldeko hizkuntza politikarekin hasi aurretik, abiaburu antzekoa zutela ziurtatzeko beste froga bat bi hirietako adinekoen euskararen ezagutzaren datuak ditugu. Era honetan, Arabako Lautadan %4,5 dira adineko euskaldunak eta Iruñean %4,1 dira, adineko ia euskaldunak ere %4,5 dira Arabako Lautadan eta %5 Iruñean eta adineko erdaldunak ere parean dabilta, Arabako Lautadan %91 dira eta Iruñean %90,9 dira.

Gainerako adin tarteetan bi hiriburuetakoa euskararen ezagutza datuak ez dira parekoak, Arabako Lautadakoak euskararen aldekoagoak dira. Hala, haurren euskararen ezagutza %43,1ekoa da Arabako Lautadan eta %19,8koa Iruñean; gazteen euskararen ezagutza %29,1ekoa da lautada arabarrean eta 13,6koa Iruñean; eta euskaraz dakiten helduak %9,2 dira Arabako Lautadan eta %6,8 dira Iruñean.

Euskararen ezagutza, sexuaren arabera. Arabako Lautada, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Gizonezko euskaldunak	Gizonezko ia-euskaldunak	Gizon erdaldunak	Emakumezko euskaldunak	Emakumezko ia-euskaldunak	Emakumezko erdaldunak
Arabako Lautada	2001	14,3	25,8	59,9	15,9	25,3	58,8

Lurraldea	Urtea	Gizonezko euskaldunak	Gizonezko ia-euskaldunak	Gizon erdaldunak	Emakumezko euskaldunak	Emakumezko ia-euskaldunak	Emakumezko erdaldunak
Arabako Lautada	2001	15.754	28.348	65.746	18.027	28.718	66.706

EDB 1.0

Euskararen ezagutza, sexuaren arabera. Iruña, 2001. (%)

Lurraldea	Urtea	Gizonezko euskaldunak	Gizonezko ia-euskaldunak	Gizonezko erdaldunak	Emakumezko euskaldunak	Emakumezko ia-euskaldunak	Emakumezko erdaldunak
Iruña	2001	9,1	11,1	79,8	8,8	10,9	80,3

Lurraldea	Urtea	Gizonezko euskaldunak	Gizonezko ia-euskaldunak	Gizonezko erdaldunak	Emakumezko euskaldunak	Emakumezko ia-euskaldunak	Emakumezko erdaldunak
Iruña	2001	12.408	15.219	109.333	12.740	15.648	115.603

EDB 1.0

Euskara dakitenak sexuaren arabera aztertzen baditugu ere, oso datu ezberdinak jasoko ditugu bi hiriburuetan. Arabako Lautadan EAEko ezagutza datuekin bat euskaraz dakiten emakumeak (%15,9) euskaraz dakiten gizonezkoak (%14,3) baino gehiago dira. Euskaldunak eta ia euskaldunak multzo bakarrean sartuz gero ere, lautadako emakumeak gehiago dira (%41,2) gizonezkoak (%40,1) baino.

Iruñean, bestalde, euskaraz dakiten gizonak (%9,1) gehiago dira emakumeak (%8,8) baino. Eta euskaldunak eta ia euskaldunak batuz gero ere gionak gehiago dira: gizonen %20,2 da euskalduna edo ia euskalduna eta emakumezkoen %19,6 da euskalduna edota ia euskalduna. 0,6 eta 0,4 puntuko diferentziaz bakarrik ari bagara ere, 2001eko datuen arabera 216.852 eta 183.964 biztanleko hiriburu hauetan %0,4a ere asko da.

Unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatuak, hizkuntza ereduaren arabera. Araba, 01/02. (%)

Lurraldea	Urtea	D ereduan	B ereduan	A ereduan	X/G ereduetan
Araba	2001	27,2	26,3	46,6	0,0

Emaitzarik ez aukeratutako eremurako (Gasteiz).

EDB 1.0

Unibertsitate aurreko ikasketetan matrikulatuak, hizkuntza ereduaren arabera. Nafarroa, 01/02. (%)

Lurraldea	Urtea	D ereduan	B ereduan	A ereduan	X/G ereduetan
Nafarroa	2001	20,5	0,2	18,6	60,8

Emaitzarik ez aukeratutako eremurako (Iruña).

EDB 1.0

Unibertsitate aurreko ikasketetako matrikulei hizkuntza ereduaren aldetik heltzen badiegu, berriz, 2001-2002 ikasturtean, Araban eredurik hautatuena (ikasleen %46,6) A izan zela eta Nafarroan G (ikasleen %60,8) izan zela jabetzen gara. Araban bigarren eredurik hautatuena D (%27,2) da, B eredua (%26,3) -0,9 puntu eskasetara badu ere.

G ereduak, garai bateko EAEko X ereduak bezala, ez du euskara ikasketatik kanpo uzten du; baita ikasgai gisa ere. Horregatik da kezkatzekoa Nafarroako euskararen ondorengoetaratzeko 10 ikasletik 6k G eredua hautatu izana. Hala ere, Nafarroako Gobernuak bere euskarazko heziketaren eskaintza publiko mugatuarekin eta bere hizkuntza eremuekin alor honetan eragiteko zirrikitu gutxi uzten dute. Gainera, B eredua oso ahula da Nafarroan, matrikulen %0,2 dira B ereduan. Horrek A eredura bideratzen dituela dirudi irakaskuntza euskara hutsean burutu nahi duten asko. Hala, A ereduko ikasleak D ereduko orpo orpo daude, +1,9 puntugatik dira gehiago D ereduko ikasleak.

Euskararen ondorengoetaratzearekin loturiko datu hauek aztertzen jarraitzeko alfabetatze-euskalduntzearen datuak aztertzea egokia litzatekeen arren, Iruñeko daturik ez izatean, euskalduntze-alfabetatzea ez dugu jorratu atal honetan.

HIZKUNTZAREN ERABILERA SUSTATZEAREN ALDEKO JARRERA EAE-N (2006)

	Guztira	Adinez adin		
		Gazteak (16-24)	Helduak (25-64)	Zaharrak (>=65)
Biztanleak	1.850.457 %100	194.260 %10,5	1.263.021 %68,3	393.176 %21,2
Oso aldekoa	500.162 %27	57.840 %29,8	334.358 %26,3	107.963 %27,4
Aldekoa	697.813 %37,7	65.350 %33,6	459.700 %36,5	172.763 %43,9
Ez alde, ez aurka	444.853 %24	47.768 %24,6	310.345 %24,6	86.739 %22,1
Aurkakoa	154.396 %8,4	15.861 %8,2	119.449 %9,5	19.087 %4,9
Oso aurkakoa	53.233 %2,9	7.441 %3,8	39.168 %3,1	6.624 %1,7

Iturria: Euskararen Adierazle Sistema

HIZKUNTZAREN ERABILERA SUSTATZEAREN ALDEKO JARRERA NAFARROAN (2006)

	Guztira	Adinez adin		
		Gazteak (16-24)	Helduak (25-64)	Zaharrak (>=65)
Biztanleak	508.961 %100	58.543 %11,5	345.701 %67,9	104.717 %20,6
Oso aldekoa	79.437 %15,6	5.526 %9,4	60.059 %17,4	13.853 %13,2
Aldekoa	112.310 %22,1	14.017 %23,9	73.685 %21,3	24.608 %23,5
Ez alde, ez aurka	142.974 %28,1	17.017 %29,1	89.768 %26	36.188 %34,6
Aurkakoa	92.709 %18,2	12.939 %22,1	62.340 %18	17.430 %16,6
Oso aurkakoa	81.531 %16	9.044 %15,5	59.849 %17,3	12.638 %12,1

Iturria: Euskararen Adierazle Sistema

Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerari buruzko erantzunak aztertuko ditugu. Hemen, ez dugu ez Gasteizko eta ez Arabako datu zehatzik eta EAekoak erabiliko ditugu; ziurrenik, EAeko erantzunetan Arabakoen aldean euskararen aldeko erantzun gehiago egongo diren arren.

EAEn biztanleen %64,7 dago euskararen erabilera sustatzearen alde (oso aldeko jarrera eta aldeko jarrera batu ditugu), %24 ez dago euskararen erabilera sustatzearen ez alde eta ez kontra eta %11,3 euskararen erabilera sustatzearen aurka (aurkako jarrera + oso aurkakoa) dago. Zaharrak dira euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak %71,3 punturekin eta gazteak, %63,4 punturekin, eta helduak, %62,8rekin, daude atzetik.

Nafarroan, berriz, euskararen aldekoen eta aurkakoen taldeak orekatuagoak dira. Nafarren %37,7 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, nafarren %28,1 ez dago ez alde eta ez kontra eta nafarren %34,2 dago euskararen erabilera bultzatzearen kontra. Gazteen artean

%37,6 dira euskararen erabilera sustatzearen aurka daudenak eta erabilera sustatzearen alde daudenak %33,3 dira. Helduetan ditu euskararen sustapenak aldeko gehien %38,7 eta zaharretan, ostera, kontrako gehien %28,7.

Gasteiz

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1989	1.9	2.7	2.0	2.0	0.7		
1993	2.5	4.2	2.0	2.6	0.9		
1997	2.9	4.7	3.4	2.4	0.9	4.7	3.7
2001	2.8	3.5	3.4	2.9	0.3	3.0	2.9
2006	4.0	5.8	6.3	3.8	0.7	4.2	3.7

Gasteizko kale erabilerak Iruñekoaren baino abiapuntu zertxobait hobea ez ezik, Iruñekoak baino erritmo biziagoa ere izan du 17 urtean. Era honetan, euskararen kale erabilerak 1,9tik 4 puntura egin du gora (bikoiztu egin da) Arabako hiriburuan eta 1,3tik 2,8ra Nafarroakoan (hemen ere erabilera bikoiztu egin da).

Gasteizen hamazazpi urtean haurrak (3,1 puntuko igoera) eta gazteak (4,3 puntuko igoera) izan dira erabilera bizitu dutenak; helduek ere jarri dute bere aletxo (1,8ko igoera) eta zaharrak ere, Euskal Herri osoko joeraren aurka erabilera maila mantendu egin dute.

Gasteizko erabilerak 2001etik 2006ra 1,2 puntuko igoera izan du euskararen kale erabilerak; %4raino hazi da. 2001ean haurretan eta zaharretan eroriko txiki bat egon bazen ere, oso garapen positiboa erakusten dute Gasteizko kaleek azken 17 urteotan. 1997tik hona, ostera, emakumeen kale erabilerak behera egin du 0,5 puntu eta gizonena mantendu egin da. Hala ere, emakumeek (%4,2) gizonek (%3,7) baino euskara gehiago erabiltzen dute Gasteizen 2006an.

Iruñea

Urtea	Guztira	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Emakume	Gizon
1989	1.3	2.1	0.9	1.4	0.6		
1993	1.8	2.6	1.6	2.0	0.6		
1997	2.8	4.1	2.5	2.7	2.4	3.4	2.7
2001	2.5	4.4	2.5	2.3	0.2	2.2	3.3
2006	2.8	4.3	1.8	2.6	1.9	2.8	2.7

Iruñean 2001etik 2006ra erabilerak +0,3 puntuko igoera izan du eta zaharren gizataldea izan da igoera hori ahalbidetu duena: 2001ean %0,2ko erabilera izatetik 2006an %1,9ko erabilerara pasa baita. Helduek ere jarri dute bere aletxo (+0.3), ordea, 2006ko igoera honetan. Goazen, bada, datuak atalez atal aztertzeraz.

1989tik hona haurrek izan dute igoerarik handiena (2,2koa), 2006an haurren kale erabilerak 0,1eko eroriko txikia izan badu ere. Gazteen artean 0,9 puntuko igoera izan du erabilerak, 1997 eta 2001 urteetatik hona 0,6 puntuko makalaldia nabari bada ere. Helduen erabilerak 1,2 puntu egin du gora nafarren hiriburuan, 1997an izan zuen helduen kale erabilerak bere goren gradua (%2,7) eta 2006an puntu horretara hurbildu da (%2,6). Zaharren erabilerak, bestalde, gora egin du Euskal Herriko datuetan ez bezala; 1,3 puntuko igoera izan du. Amaitzeko 1997tik 2001era nafar emakumeek euskararen erabilera 1,2 puntu jaitsi zuten eta 2001etik 2006ra

0,6ko igoera ahalbidetu dute. Gizonek 1997an bezainbeste erabiltzen dute euskara gaur egun, 2001eko igoerak ez baitu iraun. Gaur egun, emakumeen (%2,8) kale erabilera gizonenaren (%2,7) gainetik dago, 0,1 puntugatik bada ere.

6. ARABA ETA NAFARROA. ONDORIOAK

Hizkuntz borroka Euskal Herrian liburuan Arabako eta Nafarroako hizkuntzaren galerari buruz zera esaten da:

Arabari dagokionez, datuak Odon Apraizen lan garrantzitsu batean daude jasota: "Euskara Araban eta Gasteizen, 1850 eta 1950 artean". (...)XV. Mendearen erdialdera, juduek ere euskaraz ikastera behartuak ikusten zituzten beren buruak beren salerosketako harremanetarako. XVI. mendean zehar: lehen laurdenean, gaztelaniaz hitz egiten da jadanik Gasteizen, nahiz eta laborariekin euskaraz mintzatzen jarraitu. Mende bukaeran Gasteizko Apaiztegiko agiri batek (1587) zera diosku, euskara Azedora, Arabako Kanpezu eta Urbizuren aurre-aurreran iristen zela. (...)XVII. menderako (sic) datu zehatzik ez den arren, eta zeharkako datu batzuek adierazten dutenez, euskarak gorputz trinkoa zedukan oraindik. (...)XIX. mendearen hasieran, euskaraz hitzegitea gauza arrunta zen Albenizen eta Arabako lautadako beste herrietan. 1850-1950 epeari dagokionez, Odon Apraizek marraztua du Bizkaia eta Gipuzkoako mugetarainoko atzerakada pausatua mapa.(27. Or)

Nafarroan XVII. mendeko hasieran Zankozan ageri da euskara ohizko hizkuntza gisa (Uxue eta Irunberri); baita Tafallako iparraldean eta Lizarrako lurretan ere. Bonaparte printzearen mapak (1863) atzeratze haundi bat erakusten digu jadanik: Iruñeatik eta Agoitzetik gora erdialdean, Erronkariraino ekialdetik, eta Andia eta Urbasa mendikateraino mendebaletik. (28-29. Or.)

Beraz, bai Gasteizen eta bai Iruñean garai paretsuan XIX. mende ondarrean galdu zen euskara. Bietan berrezarri behar izan da, beraz. Bietan 1989an kale erabilera ez zen %2ra iristen. Bi hiriburuetan 2001ean adinekoek ezagutza maila (ik. or.) antzekoa erakusten dute, duela 30 urteko egoeraren adierazle gisa. Bietan ... zerrenda luzea osatuko genuke jarraituko bagenuke.

Hona hemen 1975ean Euskal Herrian zegoen euskaldun kopurua:

Probintzia	Biztanleak	Euskaldunak	%
Araba	238.262	18.863	7,9
Bizkaia	1.152.394	174.366	15,1
Gipuzkoa	682.517	307.279	45,0
Nafarroa	483.867	53.340	11,0
Hegoaldea	2.557.040	553.848	21,7
Iparaldea	227.280	78.453	34,5
GUZTIRA	2.784.320	632.301	22,7

Iturria: Hizkuntz politika Euskal Herrian (68. or)

Taula honetan 1975ean Nafarroan euskaldunak Araban baino gehiago zirela ikusten da, +3,1 puntu gehiago ziren.

Baina iritsi nahi dudana ondorengoa da: Abiapuntua antzekoa izanik oso norabide eta egiteko ezberdinak hartu dituztela Iruñea eta Nafarroak eta Gasteiz eta Arabak. Arabak EAEko

euskararen aldeko politika hedatu du bere lurralde guztira, baita euskaldunik ez zen herrietara ere. Eta pixkanaka-pixkanaka, euskara koofizialtzearekin batera, euskarazko irakaskuntzaren, alfabetatze-euskalduntzearen, hizkuntza eskakizunen bidez ... euskara lurrak eta eremuak irabazten joan da. Nafarroako Gobernuak, ordea, 1986an lurralde osoko euskararen koofizialtasunaren bila Madrilera joan eta zonifikazioa eta eremu txiki bateko koofizialtasuna ekarri zuen. Ordutik atzera ere, ordea, *Nafarroako Gobernuak jorratu duen hizkuntza politika instituzionalak jarraitu baitu euskararen erabilera soziala ez sustatzen, hizkuntzaren erabilera publikoa baztertzen eta helduek euskara ikas dezaten eta haurrak euskarazko eredueta matrikula ditzaten ez bultzatzen* (Kasares: 92).

Era honetan, Nafarroako hizkuntza politikaren fruitu direla esango nuke Euskararen erabilera sustatzeari buruz aztertu ditugun jarrerak. Hala, euskararen sustapenaren talderik aurkakoena gazteena izateak Nafarroako Gobernuaren eraginkortasuna agerian uzten du. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroak euskararekin eta Euskal Herriarekin dituen lotura oro hautsi nahian dabil, eta gazteenei euskara arrotz egitea behintzat lortu duela aitortu behar zaio.

Gasteizko datuek, aldiz, hizkuntza politika egoki baten eraginkortasuna agerian uzten dute. Hala, proiektu honen izenburua “Ahozko erabileraren garrantzia hizkuntzaren normalizazioan” bada ere lanaren norabidea ikusita “Hizkuntza politikaren garrantzia euskararen erabileran” behar luke.

7. ONDORIOAK

Iparraldean emakumeen hiztun gaitasuna hobetu behar da beraiek baitira hizkuntzaren ondorengoetaratzea ziurtatzen dutenak eta beraien egitekoaren garrantzia areagotu egiten da Ipar Euskal Herriak bizi dituen bezalako hizkuntza aniztasuna errespetatzen ez den egoeratan, ez sustatu errespetatu baizik baldintzetan.

Euskal herritarren artean Iparraldean da euskara lehen hizkuntza gisara indartsuena. Hau INDARGUNE bat da, mantendu beharreko indargune bat. Beraz, Iparraldean daude etxeko transmisioaren daturik onenak, ohitura honi jarraitzeko eta etxeko alea gizarteko beste eremuetara zabal dadin neurriak behar-beharrezkoak dira. Bestalde, partzialki erdaldunduen eta guztiz erdaldunduen kopurua Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik egoteak, euskarak familia eta norbanakoaren funtzioetik gora ez dela beharrezkoa eta zenbaitentzat galtzea ohikoa dela eta galera ez dela ohartarazten digu. Iparraldeko biztanleen %7a aurkitzen baita ataka honetan.

Nafarroan dago lehen hizkuntzat euskara ez duten biztanleen kopururik handiena; biztanleen % 90ak erdara du lehen hizkuntza, %3ak erdara eta euskara ditu lehen hizkuntza eta %6ak bakarrik du euskara lehen hizkuntza. Hau, noski, gurasoen euskara ezagutza baxuak eragiten du hein handi batean. Baina baita, Nafarroaren zonaldekako zatiketak eta zatiketa honen ondorioz ikastetxeetan euskaraz ezin matrikulatuta geratzea ahalbidetzen duen euskararen aurkako hizkuntza politikak.

Nafarroan emakumeek ezagutza datu hobeak eskaintzen dituzte, baita erabileran ere. Datu hau INDARGUNEA da, garai moderno hauetan oraindik ere emakumeak pisu handiagoa baitu haurren hezkuntzan eta hizkuntzan. Etxeko erabileran, ordea, kale egiten dute Nafarroako emakumeek.

EAEEn dago hedatuena elebiduntasunaren kultura, 2006ko datuen arabera %50a da erdaldun zaharra. Beraz, Nafarroa eta Iparraldean asko dute ikasteko, EAEEn ere erdibidean badago ere.

Ipar Euskal Herrian gizonetakoek euskararen ezagutza eta etxeko erabilera hobea erakusten dute. (Ik. Aitarekin zein hizkuntza erabiltzen duten edota gizonen erabilera). Nafarroan, aldiz, emakumeetakoek gehiago. Iparraldean etxean aitarekin euskaraz hitz egiten dutenak (%67) amarekin hitz egiten dutenak (%62) baino gehiago dira.

Hau azaltzeko Iñaki Martínez de Lunak ondorengoa dio:

... oraintsu arte euskara ondorengotartzeko zein jarrera eta portaera ezberdinak nagusitu diren ikusita, ez dirudi astakeri bat ondoko hipotesia luzatzea –tentu handiz bada ere–: kulturalki emakumeetakoak garai eta hizkuntza exigentzia berriei egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten dute eta gizonetakoek, aldiz, ohitura eta usadioei eusteko joera sendoagoa. (Martínez de Luna, 2002: 69)

Martinez de Lunaren hipotesi honek Ipar Euskal Herriko gizonen euskararen erabilera handiagoa azaltzeko balio du. Izan ere, Iparraldeko gizonezko euskaldunetatik asko laborariak baitira eta usadioekiko lotura handia baitute.

Bestalde, Nafarroan nabarmendu beharreko datua da seme-alabekin gizonezkoek emakumeek baino gehiago erabiltzen dutela euskara, +9 punturen aldea dago nagusiki euskaraz atalean eta 5 punturena euskaraz erdaraz bezainbeste atalean. Iparraldean, amaitzeko, seme-alabekin euskara egiten dutenen kopurua Euskal Herrikoaren oso azpitik dago. Era honetan, Ipar Euskal Herriko euskaldunen %28k, gizonezkoen %31k eta emakumeen %25ek, hitz egiten dute seme-alabekin nagusiki euskaraz.

Nafarroan eta Iparraldean lankideekin gehienbat erdara erabiltzen dute bertako euskaldunek. Baliteke lanean euskaldunen dentsitatea txikiago delako edota prestigio gutxi duelako. Nafarroako euskaldunen %48k, emakumeen %49k eta gizonen %46k, erdara erabiltzen du nagusiki lankideekin; euskaldunen %13k, gizonen %16k eta emakumeen %10ak, euskaraz erdaraz bezainbeste hitz egiten du lankideekin; eta %39k, gizonen %38k eta emakumeen %41ek, euskara erabiltzen du nagusiki lankideekin. Iparraldean euskaldunen %48k, gizonen %41ek eta emakumeen %55ek, erabiltzen dute erdara nagusiki lankideekin; euskaldunen %23k, gizonen %21ek eta emakumeen %25ek, erabiltzen dute euskara erdara bezainbeste lankideekin; eta euskaldunen %29k, gizonen %37k eta emakumeen %20k, soilik erabiltzen du euskara lankideekin. BEHAR-BEHARREZKOAK DIRA BERAZ LAN MUNDUKO EUSKARA PLANAK BI LURRALDE HAUETAN.

❖ HIZKUNTZA POLITIKAREN GARRANTZIA EUSKARAREN ERABILERAN

Euskararen erabilera eta ezagutza gora doazela ikusi dugu orain arte, zenbaitek nahi adinako erritmoan ez badoaz eta beheraldiak izaten badituzte ere.

Txillardegik euskararen erabilera handitzeko hiru bide proposatzen ditu. Honako hiru bide hauek dira Txillardegik proposatzen dituenak: euskaldunen euskaldunekiko harremanak, anisotropia, handitzea, euskararekiko elebidunen leialtasuna handitzea eta elebidunen kopurua handitzea (Otegi 2005: 35).

Euskaldunen euskararekiko leialtasunaren berri ematen digun ezagutzaren eta erabileraren arteko indizeak aipatuko ditugu jarraian:

- Euskal Herrian 2006an ezagutza %26koa da eta erabilera %14,2koa; erabilera eta ezagutzaren arteko indizea, beraz, 0,55koa da.
- EAEn ezagutza 2006an %30ekoa da eta 2001ean erabilera 16,1ekoa; ezagutza eta erabileraren arteko indizea, beraz, 0,54koa da.
- Nafarroan 2006ko ezagutza %11koa da eta erabilera %6,6koa; indizea, beraz, 0,6koa da.
- Ipar Euskal Herrian 2006an, azkenik, ezagutza %22koa da eta erabilera 4,6koa; indizea, beraz, 0,21ekoa da.

Indize hauek Nafarroan euskara gutxi ez dela euskaldunen leialtasun faltagatik hitz egiten erakusten dute. Hala, Nafarroan eta Euskal Herri osoan ere euskara gutxi hitz egitearen arrazoa pertsona elebidunen kopuru txikiari zor zaio.

Hala, euskararen erabilera urriaren errua euskaldunen leialtasun faltari egozteari utzi behar zaio eta Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian elebidunen kopurua hazteko hizkuntza politika eraginkorrak diseinatzeri ekin behar zaio.

Badakigu, bi lurraldeetan, instituzioek ez dutela lan honetan lekukoa edota ardura hartuko. Ondorioz, garai bateko ikastoletan bezala, herri ekimenak eta ekimen pribatuak esku hartu beharko du.

Hizkuntza politika horrek hiriburuetan eta euskaldunen dentsitatea txikia den udalerrietan anisotropia sustatzeko ekimenak abiaraztea ere beharrezkoa da. Mintzataldeak, euskarazko laguntziak eta antzeko ekimenak abatuz.

Amaitzeko, euskaldunen euskararekiko leialtasun hori zaintzeko ekimenak ere barneratu beharko ditu plangintza horrek.

8. BIBLIOGRAFIA

http://www.eustat.es/ele0004600/tbl0004651_e.html (2008-07-28).

<http://www.eustat.es/estad/municipalista.asp> (2008-07-28).

[http://www.soziolinguistika.org/eu/kale_neurketa\(2008-07-28\)](http://www.soziolinguistika.org/eu/kale_neurketa(2008-07-28)).

http://www.aretxabaleta.com/berria/pub/eusk/00_plantilla_marroia.asp?id=23 Diagnosia, plana ... (2008-07-20).

<http://www.arrasate-mondragon.org/Udala/Txostenak/Aebpn/PlanEstrategikoa.pdf> (2008-07-19).

EAS

EDB

INE

Altuna, Olatz (2007). Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. Euskal Herriko kale erabileraren neurketa. Ikerketaren nondik norakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64. (21-31).

Amonarriz, Kike (2007). Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. 2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: Aurreikuspenak eta emaitzak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64. (33-46).

Martinez de Luna, Iñaki (2007). Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64. (61-71).

Diaz de Tuesta, Jose Feliz (2007). Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. Euskararen kale-erabilera Gipuzkoan. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64. (73-86).

Kasares, Paula (2007). Kale Neurketaren V. Neurketa, 2006. Euskara Nafarroako karriketan 2006ko Kale Neurketaren emaitzen azterketa. Ikerketaren nondik norakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 64. (89-107).

Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco (2005). *III. Mapa Soziolinguistikoa 2001*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritz.

Euskaltzaindia (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbao, Ediciones Vascas.

Otegi, Maite (2006). *Zergatik euskaraz: Goierriko euskaltegi-tako ikasleen motibazioak*. Lazkao, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte (et al.).

Xamar (2001). *Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiak*. Iruñea, Pamiela.

Jausoro, Nekane. Gizarte diskurtsoak hizkuntza plangintzan. HIZNET ikastaroko 3.6. gaia.